401

# ttipi ttapa

2005eko ekainaren 30a • XXV. urtea




## 2005-2008 urtetako Azpiegitura Plana 03

Herri, kontzeju eta mankomunitateek 2005-2008 Azpiegitura Planean jasoko dituzten dirulaguntzak erabaki ditu Nafarroako Gobernuak.





## XV. Joxe Ezkurra Memoriala 27

Ekainaren 18an jokatu ziren Doneztebeen, Joxe Ezkurra zenaren omenez hamabosgarren urtez antolatutako pilota txapelketaren finalak.





26 DONATO LARRETXEA

# Urrezko Aizkolaria

# MUEBLES AMETS



**larunbat arratsaldetan irekia**

**4000m² ERAKUSKETA moblez beteak:**

- errustikoak
- modernoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedenaldia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

*Sastrin karrika,*
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*
**31789 BERA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
www.mueblesamets.com





**UDAKO ESKAINTZA**
**3+2 SOFA KONJUNTOA**

**680 €**tik goiti





**Urte guztian eskaintzak Kontsultatu prezioak**

**Uztaila, abuztua eta iraileko larunbat arratsaldeak itxita**

**Nafarroako Gobernuak ekainaren 1ean jakinarazi zuen 2005-2008 Toki Azpiegitura Planean diruz lagunduko dituen lanen berri. Aldizkari Ofizialean agertu ziren behinbetikoz onartu diren lanak, Nafarroako Gobernuak kontzeptu hauetarako eginen duen inbertsioaren %90a hartzen dutenak. Bertze lan batzuk, aurreikusitako inbertsioen %10a hartzen dutenak, behin behinekoz onartu arren erreserba teknikoan gelditu dira aurkeztutako alegazioak erabaki bitartean.**
**Udalek, kontzejuek eta mankomunitateek aurkeztutako bertze hainbat lan Planetik kanpo gelditu dira, baina hauen artean ere badira planaren balizko zabalkunde bati begira erreserban gelditu direnak. Kontuak kontu, hainbat herrietan, premiazkoak ziren lanak dirulaguntzarik gabe gelditu direnez eta udalek horiei ekiteko diru nahikorik ez dutenez, egin gabe gelditiko dira.**



## 2005-2008 URTETARAKO DIRULAGUNTZAK BANATU DIRA

# Kasik 11 milioi euro bideratuko dira lau urtez azpiegitura lanak egiteko

Aitor AROTZENA

Ttipi-ttapak hartzen duen eskualdeari dagokionez, 10.748.996,58 euroko inbertsioa eginen du Nafarroako Gobernuak hurrengo lau urteotarako planean, behin betikoz onartu diren lanak eta %10eko erreserba horretan gelditutakoak kontuan hartuta. 2001-2003 planean 6.311.258 euro zirela kontuan hartuz (1.050 milioi pezeta), kopurua nabarmen igo da, baina orduan hirurteko plana zen eta oraingoa lau urtekoa.

Orokorrean, diru-banaketa sistema hau zaharkitua dagoela uste dute eskualdeko udal ordezkariek eta Nafarroako Gobernutik ere, azken azpiegitura plana izan daitekeela ere jakinarazi dute. Gobernuaren idurikoz, honen ondotik herrietako oinarrizko beharrak nahiko asetuak geldituko dira, eta bertze sistemak erabiliko dituzte dirulaguntzak banatzeko. Baina beti gertatzen den bezala, hartutako diru kopuruaren arabera, herri bakoitzeko udal ordezkariaren balorazioa ere aldatzen da.

Inguru honetako herri handixkoenei erreparatuz, **Doneztebe** da dirulaguntza xentimorik gabe geldituko dena. Josetxo Irigoien alkate berriak aipatu digunez, *«horren ez dute deus eman, beraz, arras balorazio negati-*

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 56
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Peio Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzun, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iraizoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Irabe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortziriétako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Anai zaharrenaren jertse ñabarra

Hamaika trapu zahar, bizikleta zein eskolako liburu eskuz esku txandakatu izan dira urteetan zehar; anai zaharrenak berri gisara ibilitakoa, ostera erdikoak eskuratzen zuen eta honek ongi zainduz gero, anai txikienak hartuko luke jabetzaren lekukoa. Prozesu berdinean sar dezakegu hizkuntzaren biziraupena ere. Gaur egun ahoz aho dabiltzan ipuin, olerki, bertso eta pasarte anitzak gure aurrekoen kontzientziaren eta lanaren fruitu baitira.
Baina guztiak iraungo ote du? Aurreko egunean, Magnesitas de Navarra enpresak, berriro ere Erdiz zulatzeko nahia azaldu zuen; lau lanpostu ziztrin eta milaka kilo errautsen truke. Noizbait, Jon Maiari entzun nion etorkizunean hamaika tatuai eta piercing-ez apaindutako "aitatxi Hodei", "amatxi Eneritz" edo "aitatxi Ekaitz" paseatzen ibiliko direla Euskal Herriko espaloietatik barrena. Nolabait, gaur arraro egiten zaizkigun lotura fonetiko hauek, entzungai izango ditugula etorkizunean. Bada... hauek ere aukera izan dezatela guk ikusten ditugun mendiak, zelaiak, basoak eta berdeguneak ikusteko eta sentitzeko. Hots, guk aberasgarri izan dugun herentzia, ondorengoentzat aberasgarri izan dadila.

**Jon BARBERENA**

## Kultur arteko jardunaldiak

Tarte hau probextu nahi dugu «Muga guztien gainetik» lelopean antolatutako jarduera hauetan musutruk parte hartu duzuen guztioi eskerrak emateko:
Hasteko eskerrak eman Bidelaguneko Isidro eta Mikeleri proiektu hau bultzatzeagatik.
Juanma jardineri futbitoko kamisetak egiteagatik. Juan Telletxeari futbito txapelketan laguntzeagatik. Edorta eta Basilio kantautoreei. Edu eta bere pandilari Doneztebeko karrikak animatzeagatik. Sukaldari, tailerretan eta futbito txapelketan aritu zaretenoi. Josuri eliz ataria uzteagatik. Hitzaldian parte hartu duzuen guztioi. Mikel Albisuri diapositiba emanaldiagatik. Iñaki Sanchezeri kartelagatik. Kasinori. Mariñeri bere denbora dedikatzeagatik. Sunbilla, Narbarte, Legasa, Saldias, Ituren eta Eratsungo eskolei. Eta ekitaldi guztietan hortxe parte hartzen egon zareten guztioi.
ESKER MILA AUNITZ!!

**Gazte Burrunba K.E.**

## Eskerrik asko denei

Herritar guzik dakiten bezala, moto istripu larria izan nun lehengo abuztun 18an. Horren ondorioz, hilabete bat pasatu nun Donostiako Ospitaleko UVIn eta beste zazpi Bartzelonako parapleijkoen zentro baten. Han ikasitakoei esker, itxean nago orain bizi "normal xamarra" eginez. Hala ere, nere bizitza oraindik ere normalagoa izatea espero dut nere etxebizitza hobekixiago prestatzen eta Bartzelonako klinika pribatu baten egin beharreko operazioa egiten didatenean.
Dena den, karta honen helburu bakarra nik hain gaizki pasatu duan hilabate hauetan hainbeste lagundu didatenei eskerrak ematea da. Eskerrak bereziki nere itxekoei, osaba-izeba eta lehengusuri. Ez dekit zer eginen nun haien laguntzik gabe. Eskerrik asko, baita ere, nere koadrilakoei eta orokorrean goizutar eta aranoar guzieri, handik ere ustegabeko laguntza ailetu baizitzaidan. Besarkadak eta musuk denentzat.

**Iñaki LOIARTE (Goizueta)**

## Patxi Zabaletarekin elkartasuna

ETAren 105. Zutabean, eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren (EPPK) maiatzaren 25eko prentsa-oharrean agertzen diren Patxi Zabaletaren aurkako irainak eta mehatxu itxurakoak salatzeko, sinadura bilketa bati ekin diogu alderdikide eta lagunek, agiri labur baten inguruan. Agiriak honela dio:
«Patxi Zabaletarekin elkartasuna
Idatzi labur honen bidez, azpian sinatzen dugunok pentsamendu politikorako askatasuna eta ezberdintasunerako eskubidea aldarrikatu nahi ditugu.
Aldi berean, gure arbuio tinkoa azaldu nahi dugu edozein ideia politiko defendatzeagatik edonork jasan ditzakeen irain, jazarpen eta mehatxuen aurrean».
Sinatzaile zerrenda prentsan emango genuke argitara ekainaren amaieran. Sinatzeko bidali mezua patxielkartasuna@aralar.net eta bidali mezu bat zure izena jarriz. Milesker

**Berako ARALAR**

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •


Diario Noticias 2005-06-08

*«Duela urte batzuk Internet-era jo nuen, nere familiaren jatorriari buruzko informazio bila, han topatu nuen Txilera emigratu zuen baztandar baten datua, Agustin Otondo Dufurrena. Bera genealogia eta heraldikan aritzen da, berekin harremanean jarri eta eskutitzak elkartrukatu ditugu. Otondotarren lehen topaketa 2003an egin genuen Txilen, iaz Argentinan izan ginen eta aurten, uztailaren 3tik 5era, Erratzun eginen dugu».*

Candelaria OTONDO
Antolatzailea
D. Noticias 2005-06-08

*«Jendeak, aziendekin zerbait egin nahi duenean, behiak erosi eta ixtegi ikaragarri handiak jartzen ditu baina horrek hemen ez du balio. Konturatu gara hobe dela gutixeago egitea, baina hori kalitatekoa».*

Aitor AZKARATE
Arizko Jauregiakoa
Euskal Herria 2005-06

*«Saldu? Zertarako saldu? Hori da gure mentalitatea. Ez saldu, ez saldu inoiz. Lurrarekin, etxearekin daukagun lotura da, gelditzera bultzatzen gaituena».*

Fermin ALTZUGUREN
Etxalarko Bagoleko Bordakoa
Euskal Herria 2005-06

## • 11 GALDERA LABUR •



**Tanborrada, musika edo buila?**
Buila, buila.

**Peñen danborrada zuzentzeko musikari ona izan behar da?**
Ez da behar, ez.

**Zein da danborjole gehien jartzen dituen peña?**
Baikorrak, dudarik gabe.

**Zer sentitzen duzu txupinazoa aditzean?**
Gauza berezirik ez, neretzat Sanferminak tanborradarekin hasten dira.

**Ezpatadantzari garaiko oroitzapenik onena eta txarrena?**
Onena 11etan Napoleonesekin ateratzea eta txarrena plantea egin zen urtea, horren arrazoiekin ados baldin banintzen ere.

**Betizuak, plazan edo etxeko balkoitik?**
Etxeko balkoitik, gustatzen zaizkit baina beldurra ematen didate.

**Zure peñak adierazten duen bezain baikorra zara?**
Uste dut baietz.

**Ezkonduen Eguneko egitarauari begiratzen diozu orain?**
Bai, orain urtero bazkaria egiten dugu koadrilako ezkonduek.

**Zer dute Lesakako Sanferminek Iruñekoek ez dutenik?**
Herri giroa eta xarma handiagoa.

**Uztailak 11, astelehena: ohatzean, lanean edo Iruñean?**
Lehenago Iruñera zuzenean joaten ginen, baina orain 11, 12 eta 13a ohatzean.

**Astelehena pasatzeko errezetarik onena?**
Erdaraz erraten den bezala, «Contra el clavo, martillazo!».

**Xabier ARIZTEGI**
*Lesakako tanborradaren zuzendaria*






















ERREPIDEAK

# N-121A errepidean Berrizaun-Bera zati berria egiteko proiektua onartu da

## Halere, Bera-Endarlatsa eta Endarlatsa-Behobia zatiak egin arte ez dira hasiko lanean

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuak behin betirako onartu du N-121A errepidean, Berrizaun eta Bera arteko zati berria egiteko proiektua. Aldi berean, 51,8 milioi euroko hasierako aurrekontua izanen duen proiektua bitan zatitu du. Lehendabiziko faseak, Berrizaunetik Etxalarko bidegurutzera, 22 milioi terdi euroko aurrekontua izanen du eta bigarren faseak, Etxalarlatsatik Bera artekoak, 29,3 milioi eurokoa. Hori bai, proiektua onartu baldin bada ere, Bera-Endarlatsa eta Endarlatsa-Behobia arteko zatiak egin arte ez omen da gauzatuko. Bi zati hauek 2009. urtean akautzea aurreikusia dago. Beraz, ordura arte ez dira hasiko Berrizaun eta Bera arteko bide berria egiten.



Arregokoa

**Nabasturen baserri inguruan, Listirketa mendian tunela egitea eskatzen zuen alegazioa ez du onartu Herrilan Departamentuak.**

Behin betiko onarpenean, aurkeztutako hameka alegazioak erabaki dira. Alegazio hauek Igantzi eta Berako udalek beraien izenean eta partikularren izenean, partikularrek eta enpresa ezberdinek aurkeztu zituzten. Zenbaitetan, alegazioan eskatutakoa proiektuan berean ageri zen, bertze batzuetan ez dira kontuan hartu, eta zenbait onartu egin dira. Errate baterako, Listirketa mendian tunela egitea eskatzen zuen alegazioa ez du onartu Herrilan Departamentuak. Nabasturen baserri inguruko nekazaritza lurrei kalterik ez egiteko eskatu zen tunel hau egitea eta Berako harrobi ingurura aterako litzateke, baina dirudienez, segurtasun arazoak eta zailtasunak sortuko lituzke egiterakoan eta horregatik ez da onartu. Bertze gauzen artean, Herrilan Departamentuak Bidasoako trenbideko lanei segida emateko lanak aurrikusi ditu proiektuan eta trazatua «*funtzionalitatea, bideragarritasuna eta ingurumen inpaktoa aztertuz*» egin omen du.

### Bi tunel eginen dira Basataundin eta Amixelaietan

Proiektuaren trafiko ikerketan ageri denez, errepide hau hazkunde handikoa izanen da, beraz, gero eta trafiko gehiago espero da. Trazatu berriak egora horri aurre eginen dio eta bide azkarraren ezaugarriak izanen ditu. Hiru metro terdiko bi karril eta metro terdiko bide bazterra izanen du bi aldeetan. Beharrezko den lekuetan, hirugarren karril bat ere eginen da ibilgailu azkarrendako. Gaur egungo 9 kilometroen ordez, 7 kilometro eta 800 metro izanen ditu errepide berriak eta bi tunel eginen dira, Basataundin 425 metrokoa eta Amixelaietan 274 metrokoa. Igantzi, Etxalar eta Matxaingo loturak ere eginen dira.













BERA

# Uztaileko udalekuak prest dituzte ikastolak eta Jesusen Bihotzak

## Jesusen Bihotza ikastetxean euskaraz eta ikastolan ingelesez

**Amaia eta Ainhoa**

Haurrek ikasturtea bukatu eta oporraldiari hasiera eman diote eta aurten ere ikastetxeek haurrek elkarrekin denbora librea pasa dezaten, bi udaleku antolatu dira Beran.

Alde batetik Jesusen Bihotzako Guraso Elkarteak eta Berako Udalak antolatu dituzten udaleku idekiak daude, uztailaren 1etik 31 bitarte egitekoak. Goizez izanen dira udalekuak 10:00etatik 13:00etara ikastetxean bertan bilduko dira eta edozein herritako haurrak joaten ahal izanen dira, 3 eta 7 urte bitarte dituztenak beti ere. Denbora librea betetzeaz gain, euskara bultzatzea (euskaraz izanen dira udalekuak) eta herriko nahiz kanpoko haurren arteko harremanak indartzea dute helburu. Izena emateko ikastetxera deitu behar da eta Ines edo Arantxaz galdetu, edo bertzela 948631042ra deitu. 45 euro kostako da izena ematea eta prezioan gosariak eta asegurua sartzen dira.



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

**Berakojubilatuek urtean zehar lan ezberdinak egin dituzte elizan, kanpandorrea moldatzea bertzeak bertze. Azken asteotan ere lanean aritu dira eta argazkian ikus daitekeenez parrokiara goitzeko eskailerak moldatu dituzte.**

Bertzalde, Labiaga Ikastolak *ingeles-udalekuak* antolatu ditu. Uztailaren 4tik 29ra luzatuko dira eta 1. mailatik 6. maila bitarteko haurrek eta DBHko batzuk ere parte hartuko dute, guztira 63 haurrek eman dute izena. Eguna bi zatitan banatzen dute eta lehenengoan britaniar begiraleekin egoten badira, bigarren zatian begirale euskaldunekin pasatzen dute jolasean. Udaleku hauen helburu nagusia ongi pasatzea bada, euskara eta urte guzian ikasitako ingelesa praktikatzea ere lortu nahi da. DBHko 5. eta 6. mailakoak gainera astean behin kirola egitera kanpora aterako dira: piraguismoa, tirolina, mendi ibilaldiak... Gau bat kanpinean ere pasako dute handienek.

### Bestatako programaren azala

Berako bestetako egitarauaren azal lehiaketako irabazlea zein den jakin dugu azkenean. Lehenengo deialdian, maiatzakoan, aurkeztu zitren 5 kartelek ez zutenez guttieneko maila betetzen, bigarren deialdia egin zen. Sei lagunek aurkeztu dute beraien lana eta ekainaren 23an epaimahaiak Berako Bixente Tabernari 300 euroko lehen saria ematea erabaki du. Tabernaren kartela aurreko urtetako bestetako argazkiekin osatutako muntaia da.

### Maddi Irazoki beratarraren erakusketa

Uztailaren 1etik 24ra bitartean Maddi Irazokiren pintura, eskultura, grabatu, zianotipia eta kamisetak ezagutzeko aukera izanen da Kultur Etxean. Erakusketa modu klasikoa saihestu nahi du egile beratarrak, horregatik instalazio bat eginen du, lan xoko ezberdinak jarriz.

FLASH

### Haurtzaindegiari dirulaguntza eman diote

Nafarroako hainbat Udal eta Hezkuntza Sailaren arteko hitzarmenak onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Horrela, haurtzaindegiei dirulaguntza emanen zaie, eta aldi berean, lan egiten duten gurasoei aterabide bat eskainiko zaie. Berako Udal Haurtzaindegiak egun osorako bi gela dauzka eta bat egun erdirako, 36 plaza denera. Hezkuntza Sailak 35.648,74 euroko dirulaguntza emanen dio.

### Selektibitatea

Azterketak direla eta, ekaina, ikasle gehienentzako urteko garairik okerrena izaten da, institutuko azken urtea dutenentzako batez ere. Ikasturte osoko ikasgaiak ikasi eta unibertsitatean sartu ahal izateko selektibitate azterketa izaten dute. Berako Toki Ona Institutukoek Iruñean egin zituzten azterketak eta emaitzak iaz bezala onak izan direla erran daiteke, 22 ikasletatik bakarra gelditu da gainditu gabe. Orain uda aitzinean dutela oporraldiaz gozatzea bertzerik ez zaie gelditzen.

### Kirol Eguna uztailaren 2an

Uztailaren 2an, larunbatean, eginen da Berako I. Kirol Eguna. Goiz eta arratsaldez hainbat ekitaldi antolatu ditu udal kirol batzordeak.










LESAKA

# Eskualdeko mugikortasunari buruzko proiektua aurkeztu zen

Ekainaren 20an Udaletxean



Argazkia: Aitor AROTZENA

***Haurren Eguna egin zen ekainaren 18an***

**Irain eskola eta Tantirumairu ikastolako Guraso Elkarteekantolatuta Haurren Eguna egin zen ekainaren 18an. Goiz-arratsalde sargorian ederki gozatu zuten konbentuko aitzinaldeko itzalaz eta igerileku ireki berrian paratutako puzgarrietaz, eskulanak eta joku ezberdinak eginez.**

Aitor AROTZENA

Ekainaren 20an aurkeztu zen udaletxean eskualdeko mugikortasun jasangarriari buruzko proiektua. Jakina denez, udaletik motorreko ibilgailuak guttiago erabiltzeko kanpaina egiten ari da, herritarren ohiturak aldatuz, segurtasun eta kutsadura arazoak piskanaka moldatzen joateko. Autorik gabeko eguna egiten da hilabeteko lehen astelehen eta asteartean eta etorkizunera begira, trenabidea moldatzeko, herrigunea oinezkoendako prestatzeko eta bertzelako egitasmoetan ari dira lanean. Ekainaren 20ko aurkezpenarekin, ohitura osasungarri hauek herritik eskualde osora hedatu nahi dira poliki-poliki.

# Junior mailako Euskadiko txirrindularitza txapelketa herrian erabaki zen

Ekainaren 18an burutu zen Beti Gazte elkarteak antolatutako 35. Miguel Elizalde Memoriala. Lehen urteko junior mailako txirrindulariei zuzendutako proba hau berezia zen aurten, Euskadiko txapelketa ere jokoan baitzen. 169 txirrindularik hartu zuten parte eta horietatik 69k akautu zuten 70 kilometroko ibilbide gogorra. Bero sargoriak oraindik bortitzagoa egin zuen. Sumofic taldeko Gurutz Larrea gipuzkoarra izan zen txapeldun, eta Laxi taldeko Beñat Uranin gipuzkoarrak eta Lizarrako Deportes Uro taldeko Joseba Goikoetxeak osatu zuten podiuma.

Bitxikeria gisara, probako azken sailkatuak ere, saria jaso zuen Josefina Sagardia, Miguel Elizalde zenaren alargunaren eta beraien biloben eskutik.



Argazkia: Telleria

**Azken sailkatuak ere saria izan zuen Miguel Elizalde Memorialean**

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ✆ 948 630 763
abokatua

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Termita eta Pipien tratamenduak
Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) LESAKA



ETXALAR

# Usategietan udako bisita gidatuak antolatu ditu Edurne Elizagoienek bigarren urtez

## Uztaila eta abuztuan izanen dira, larunbatetan, euskaraz eta gaztelaniaz

**Joseba eta Nerea**

Edurne Elizagoienen eskutik, bisita gidatuak antolatu dira uda partean Usategietan. Joan den urtean egin zen lehenbiziko aldiz eta heldu den uztaila eta abuztuan berriz hasiko dira bisita hauek. Kanpotik datozen turistei nahiz inguruko bisitari guziei zuzenduak daude eta larunbatero izanen dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Goizeko 9:30etan eta 18:00etan euskaraz eta 11:00etan eta 19:30etan gaztelaniaz. Oinezko ibilaldiak izanen dira eta ordu bat inguru iraunen dute. Bertzeak bertze, Usategien historiaz solastuko da Edurne, azalpenak emanen ditu bertan egiten den ehizaren inguruan eta postuak erakutsiko dizkie bisitari-koadrilei. Antolatzaileak berak aipatu digunez desberdina izanen da udazkenean egiten zituzten ibilaldietatik. *«Orain ez da ehiza sasoia eta jendeak ezin izanen du usoa sa-retan sartzen ikusi, ezta ehiztarien tiro hotsik aditu ere».* Bisita gidatu hauetan parte hartu nahi duenak 2 euro ordaindu beharko du eta aitzinetik telefono batera deitu: 690267756 zenbakira. *«Udan ibiltzen den bisitari multzoa ikusita, aukera bat gehiago ematea da helburua, bidenabar gure herriaren xokorik politenetako batzuk erakutsiz»* erran digu Edurnek.



Argazkia: Joseba OLAGARAI

**Edurne Elizagoien, uda honetan salduko den kamisetarekin.**

### *Oporrak Landagain Eskolan*

Landagain eskolan ere oporrak hartu dituzte. Ekainaren 23an eskurtsio politarekin ospatu zuten ikasturte bukaerako eguna. Urdazubiko lezeak ikusten egon ziren goizez eskolako haur guztiak eta arratsaldea Senpereko lakuan pasatu zuten. Horrela, erraten ahal dugu giro onean eta gustura akabatu zutela 2004-2005 ikasturtea. Heldu den irailerarte libre izanen dute. Orduan otorriko zaio garaia motxila eta liburuak hartu eta berriz ikasketetan pentsatzen hasteko. Bitartean, gozatu dezatela uda.

### *Larraburukoak San Joan Xarren*

Ekainaren 24an, San Joan egunarekin, Igantziko San Joan Xarren egon ziren Larraburuko kideak. 30 bat laguneko koadrila bildu zen eta meza adituta, hankak garbitu zituzten gehientsuenek, gaixotasunak sendatzeko esperantzan. Ondotik, Berako Zalain jatetxean izan zuten bazkaria. Arratsaldean Hendaiako "Antoine D´Abbadie" gaztelua bisitatu zuten eta Hondarribiko Endanea mindegian akautu zuten bidaia. Jabier Indaburu antolatzaileak erran digunez *«kasik Larraburua elkartea sortu bezain abudo hasi ginen San Juan Xarrera bidaia egiten. Ez dugu urte batez ere hutsik egin eta hagitz ongi pasatzen dugu aldiro».*









ARANTZA

# Ekaitza elkarteak uztailaren 30ean ospatuko du bere 25. urtemuga

## Belate elkartearen herri arteko txapelketan garaile izan dira aranztarrak

Nerea ALTZURI

Heldu den uztailaren 30erako egun haundia prestatu du Ekaitza elkarteko batzordeak. Hogeita bortzgarren urtebetetzea du Ekaitza elkarteak eta urtemuga probextuz, egun osoko egitaraua zehaztu da. Azkeneko kontuak lotzeko eta hondarreko ukituak emateko, aste honetan bertan bilera dute juntakideek. Hurrengo alean egitarauaren berri emanen dizuegu. Nolanahi ere, ideia bat egin dezazuen, kirolak, bazkaria, bertsolariak, musika... arlo hauek hartuz, egitarau oparoa izanen da uztailaren 30a, larunbata, osatzeko. Zorionak Ekaitza elkartea!



ARGAZKIA: GREGORIO MITXELENA

**Berriz ere herriko pilotari gazteak zoriondu behar ditugu. Belate elkartearen herri arteko pilota txapelketan hiru bikotek garaipena lortu dute hiru kategorietan. Ekainaren 5ean Larraintzarko Ultzama frontoian finaleko partiduak jokatu ziren. Hiru bikoteek Burlatakoen kontra partiduak irabazi zituzten. Kadete mailan, Imanol Mitxelena eta Joseba Madariagak 22-13 irabazi zioten Burlatako bikoteari; gazteetan 22-20 irabazi zuten Beñat Mitxelena eta Igor Arregik eta handietan, Joseba Pikabea eta Xabier Elizaldek 22-10 emaitzarekin eskuratu zuten garaipena Burlatako bikotearen kontra.**

### *Udalekuak herrian*

Herriko gaztetxoek ikasturtea bukatu bezain abudo, udako oporraldia gustora hartzen dute. Aurten ere, bigarren urtez, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez, udaleku irekiak abian dira uda honetarako. Udalekuetan hiru eta hamabi urte bitarteko haurrek izena eman dezakete. Lagun giro polita sortzen da haur eta gaztetxoen artean euskaraz; sormena lantzen ikasten da eta natura errespetatzen irakasteaz gain, gaztetxo bakoitzari autonomoa izateko lagungarri izaten dira topaldiak. Arantzan uztailaren 18tik abuztuaren 12ra, astearte eta ortzegunetan 15:00etatik 18:00etara izanen dira egunak. Astean sei ordu izanen dira eta izen ematean 20 euro ordaindu behar dira. Ekimen ezberdinak egiten dira, eguraldiaz, naturaz eta bertzelakoetaz gozatzeko baliagarriak: igerilekura joan, baserri bat bisitatu, sukaldaritza eta musika tailerrak, antzezlanak egin, errekak garbitu, inguruko herriak bisitatu...

### *Arantza Rock*

Gazte Asanbladak, Arantza Rock 2005 ekitaldia prestatzeko lana abiatua du. Iaz bezala, herriko bestetatik kanpo kontzertua eginen da eta kamisetak ere martxan dira. Xehetasun gehiagorik ez dugu, baina gazte kontsideratzen den edonork esku bat bota dezake prestaketan eta egunean bertan. Egunaren zehaztapena eta emanaldian parte hartuko duten taldeen berri hurrengo aleetan emanen dizuegu.









IGANTZI

# Gaztainbakarreko bidegurutze arriskutsuan errotonda eginen da

653.284,31 euroko aurrekontua izanen du

ttipi-ttapa

Arantza eta Igantzira doazen errepideen bidegurutzean, Gaztainbakar inguruan, errotonda egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Lan honetarako 653.284,31 euroko aurrekontua izanen da.

Proiektua, Arantzara doan NA-4020 eta Igantzitik datorren NA-4052 errepideen bidegurutzean gauzatuko da. Igantzitik datozen ibilgailuendako, batez ere, ikusmen guttiko bidegurutze estua da. Arantza aldera hartzeko, gainera, zaila suertatzen da itzulia egitea. Igantziko harrobitik joan-etorrian hainbat kamioi astun ibiltzen direla kontuan hartuz, arrisku hori oraindik handiagoa da.



Argazkia: Aitor AROTZENA
Igantzitik Arantza aldera hartzeko zail egiten da biratzea.

Puntu arriskutsu hau kentzeko, errotonda egitea eta bidegurutzerako bi sarbideak aldatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Biribilak 13 metroko erradioa izanen du, bortz metro terdi zabaleko karrila, metro bateko bide bazterra kanpoko aldetik eta metro terdikoa barneko aldetik. Errepideei ere hiru metroko zabalera emanen zaie, metro erdiko bide bazterrarekin bi alboetan.

Lanak, seinalizazio horizontal eta bertikalaren berrikuntza eta hobetzearekin eta babeserako hesi bikoitza jartzearekin osatuko dira. Arestian aipatutako 653.284,31 euroko aurrekontutik 100.000 euro aurten ordainduko dira eta gainerakoa 2006. urtean.

### *Udal Plan Orokorra*

Igantziko Udal Plan Orokorraren erredakzio lanak kontratatzeko 60.000 euro bideratuko ditu. Zerbitzua lehiaketa bidez emanen da eta interesatuak udal idazkaritzan izanen dute informazioa.

## Herriko kirolariak sasoiko Iparraldeko Joku Torneoan

ttipi-ttapa

nafarroako Herri Kirol Federazioak bosgarren urtez antolatutako Iparraldeko Joku Torneoan herriko kirolarien lana nabarmentzen ari da. Koxkor biltzen, Patxi Irazoki bigarren izan zen lehen saioan eta laugarren bigarrenean. Nafarroako txapelketarako txartela eskuratzeko aukera handiak ditu. Ingude altxatzen, Xabi eta Carlos Seinen arteko lehia ikusgarria izan da orain arte jokatutako bi jardunaldietan eta larunbat honetan Orbaitzetan erabakiko da txapela. Lasto altxatzen ere lehia ikaragarria dago lau kirolari igantziarren artean: Xabi Sein, Iñaki Bereau, Carlos Sein eta Oskar Telletxea. Lehen jardunaldian guziek hamabina altxaldi egin zituzten, pentsa! Txinga eramaten txapela Igantzira etorriko da, Oskar Telletxearen burura. Orain arteko bi saioetan jaun eta jabe izan da. Zakulari lasterketan ere txapela eskura dezake Iñaki Bereau, Josu Telletxea eta Eneko Mitxelenak osatutako herriko hirukoteak. Lehen saioan Berriozarren aitzinetik izan zen eta bigarrenean gibeletik. Larunbateko azken saioan ikusiko da.







BORTZIRIAK

# Arrakoizko industrialdearen bideragarritasuna aztertuko du NASUINSAk

Irailean berriz biltzekoak dira Nafarroako Gobernuarekin

ttipi-ttapa

Bortzirietako udal ordezkariek Etxalarko Arrakoitz inguruan industrialdea egiteko laguntza eskatuz emandako prentsaurrekoaren berri eman genuen aitzineko alean. Eskari horri segida emateko, Bortzirietako udal ordezkariek Iruña aldeko bidea hartu zuten ekainaren 15ean. Miguel Mari Irigoien Etxalarko alkatea, Jon Abril berako alkate ordea, Vicente Arotzena Arantzako alkatea, Jesus Mari Begino Igantziko alkatea eta Patxi Txokarro arkitektu aholkulana, Jose Javier Armendariz Nafarroako Gobernuko Industria kontseilariarekin, Enrique Diaz departamentu horretako zuzendari nagusiarekin eta Nacho Nagore NASUINSA enpresa publikoko ordezkariekin bildu ziren. Bertan erabaki zutenez, NASUINSAk (Navarra de Suelo Industrial, S.A.) Arrakoizko industrialdearen bideragarritasuna aztertuko du.

Bilera hau baikortasunez hartu dute Bortzirietako ordezkariek, lan dinamika bat ezarri delako etorkizunera begira. Heldu den irailean berriz ere biltzekotan gelditu dira. Jakina da lurraren prezioa Nafarroako bertze hainbat eremutan baino garestiagoa izanen dela Arrakoitzen, baina Bortzirietako udal ordezkarien ustez, kontuan hartu behar da bertan kokatzen den enpresa Gipuzkoatik eta mugatik hurbilago egonen dela eta bertze lekuetan aurkituko ez dituen zerbitzuak ere eskura izanen dituela.

Alkaiagako industrialdea bete ondotik, Bortzirietan industria kokatzeko leku libre bakarra da Arrakoitz ingurua. 75.000 metro koadro erabilgarri izanen lituzke industrialdeak, baina lurrak partikularrenak dira. Gipuzkoa aldeko enpresa batzuk eskatua dute lekua, baina Bortzirietan oraingoz ezin zaie deus eskaini.



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

### *N-121A errepidearen moldaketa lanen gibeleratzea salatu du Eusko Alkartasunak*

**N-121A errepidearen moldaketa lanen gibeleratzea eta moteltasuna salatzeko prentsaurrekoa eskaini zuen ekainaren 16an Eusko Alkartasunak Berako Herriko Etxean. Ekitaldi honetan, Maiorga Ramirez, EAko Nafarroako presidenteak eta Helena Santesteban Berako alkateak hartu zuten hitza. Beraklen batera, Mikel Irujo, EAko antolaketa arduraduna, Arantxa Zubieta, Etxalarko zinegotzia eta Txarli Ayala Lesakako zinegotzia izan ziren mahaian. Maiorga Ramirezek aipatu zuenez, egunero istripuak eragiten duen errepidea izan arren, Nafarroako Gobernuak begiak itxi egin ditu arazoaren aitzinean. EAko kideen ustez, Nafarroako Gobernuak eta egun PNVk zuzentzen duen Gipuzkoako errepide departamentuak hartutako akordioak, lehendik EAk hartutako erabakia bete bertzerik ez du egiten. Maiorga Ramirezek aipatu duenez, *«Gipuzkoa aldeko zatia sinadura baino lehen erabakita zegoen moduan konpontzen da eta Nafarroako zatia atzeratzen duenez, deus gutti irabazi da akordioarekin».***

# Udalekuak eskaintzen ditu aurten ere Euskara Mankomunitateak

Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakan izanen dira

ttipi-ttapa

Neska-mutiko guztiek oporrak dituztela eta, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakako haur eta gaztetxoak gonbidatu ditu udaleku irekietan parte hartzera. Kontuan hartu behar da Beran ikastetxeek antolatzen dituztela udaleku hauek, beraz, Mankomunitateak bertze lau herrietako neska-mutikoei eskaintzen die aukera. Lagunartean ongi pasatzeko modua izanen dute hiru eta hamabi urte bitarteko haurrek, eta horretarako, jolas eta talde dinamiketan trebatua den begirale talde bat arituko da lanean.

Udaleku hauen helburuei dagokienez, haur eta gaztetxoek ongi pasatzea lagun-giroa sortuz, euskara bultzatzea eta kurtsoan ikasitakoa mantentzea, natura errespetatzen ikastea, sormena lantzea eta haur bakoitzari autonomoa izaten laguntzea daude, bertzeak bertze. Programazioaren barnean, igerilekura joan, antzerki bat prestatu, erreka garbitu, bertze herri batera egun pasa joan, baserri bat bisitatu eta sukaldaritza eta musika tailerrak eginen dituzte.

MALERREKA

# Iturengo ipuin eta marrazki lehiaketen sariak banatu ziren

## Ibintzak eman zituen ekainaren 18an Herriko Etxeko ganbaran

Arkaitz MINDEGIA

Ibintza kultur taldeak antolatu zuen ipuin eta marrazki lehiaketaren sari banaketa ekainaren 18an egin zen Herriko Etxeko ganbaran. 5. eta 6. mailako haurrek ipuina egin behar zuten, *"saharatar bat gure etxean"* gaiarekin eta irabazlea Itziar Baztерrika izan zen. Gai libreko ipuina zuten 3. eta 4. mailakoek eta Manexentzat izan zen saria eta azkenik 1. eta 2. mailako haurretan Naroaren marrazkia izan zen irabazlea udaberria gaiarekin.



Argazkia: Joseba Olazar

**Ikasturte bukaera Sunbillan ospatu zuten herriko ikasleek, Sunbilla, Narbarte eta Legasakoekin.**

### *Nafarroako Gazteen bertso topaketan*

Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazuk Nafarroako Gazteen Bertso topaketan parte hartu zuten eta ekitaldia Iruritako Gizarte Bilgunean jokatu zen. Ez dute lehenengo 4 postuetan sailkatzea lortu baina garrantzitsuena parte hartzea da.

### *Sahararen aldeko besta*

Orain dela hilabete bat Sahararen aldeko besta iragarrita zegoen Iturenen, baina azkenean bertan behera gelditu da antolaketa arazoengatik. Etorri zireneі barkamena eskatu nahi diete antolatzaileek, eta aurrerantzean egiteko asmoa dagoela adierazi dute.

## San Joan bezperako suak

San Joan Bezperan, ekainaren 23an, Euskal Herriko herri, baserri eta herrietan suak piztu ziren eta baita Iturenen ere. Urtero bezala, gaztetxoek aurretik lanean ibiliak ziren ilusio osoz etxez etxe taldeka edo kuadrilaka banatu eta kartoi eta paperak biltzen. Gaua ailegatu eta hainbat tokitan neurri guztietako suak ikusi ahal izan ziren. Eta ohiturari segituz *"sarna fuera sarna kanpora onak barrenera ta txarrak kanpora"* oihua bota zituzten.

# Leurtzako urtegiak hustu egin dituzte ura hobeki kontrolatzeko

## Ur kopurua neurtzeko zundak eta hodi zati berri bat jarriko dira

ttipi-ttapa

Urrotz eta Beintza-Labaien artean dauden Leurtzako bi urtegiak hustu egin dituzte, uraren kontrolerako sondak jartzeko eta Oizko argindar zentralera ura eramaten duen hodiaren zati bat aldatzeko. Lehenik beheko urtegia hustu zuten Iberdrolako langileek, bortz metroko altuera utziz ura ez uhertzeko. Beheko urtegian beharrezko lanak egin zituztenean, goikoa hustu zuten eta horko urarekin behekoa bete zuten. Leurtzako bisitariak harrituak gelditukoziren egun hauetan urtegiaren itxura ikusiarekin.

Jakina denez, Leurtzako ura ez da edateko erabiltzen, argindarra sortzeko baizik. Hala, urtegi bakoitzak duen ur kopurua eta zentralera bideratzen dena neurtzeko jarri dira bi zundak, urtegi bakoitzean bana, zolan eta presaren pareta ondoan. Horrexegatik hustu behar izan dira urtegiak. Behin urez betetzerakoan, zunda hauek ez dira ikusiko. Zundek funtzionatzeko behar duten energia eguzki-paneletatik biltzen dute, eta horiexek dira bisitariek ikusiko duten aldaketa bakarra.



Argazkia: Alida del Castillo

**Beheko urtegia hustu eta uraren kontrolerako zundak jarri dituzte.**

Zundak jarri ondotik, zentralera doan hodi zati bat ere aldatuko da. Obra egiteko hilabete terdi inguru beharko dute eta bitartean ezin izanen da ur tanta bat ere hustu. Horregatik, beheko urtegia normalean baino guttiago bete dute, 45-50 metro arte eta goikoa kasik hutsik utzi dute, euria eginen balu lekua izan dadin.




PAGOLA

TXISTORRAREN IZENA

✆ 948 630 054

Altzateko Plaza, 2

BERA

ARKUPEAK

# Lourdesera bidaia eta aitatxi-amatxien eguna prestatu ditu erretiratuen elkarteak

## Uztailaren 19 eta 20an joanen dira Lourdesera eta uztailaren 4an eman behar da izena

**ttipi-ttapa**

Arkupeak erretiratuen elkarteak bertze urte batez Lourdesera bidaia antolatu du. Aurtengoan, uztailaren 19 eta 20an eginen dute bidaia, baina izen emateko eguna uztailaren 4a izanen da, astelehenena, goizeko 11etatik 12etara, 948 450878 telefonoan. Ordainketa berriz, uztailaren 6an eginen da, Arkupeak elkartearen bulegoan edo norberaren herriko ordezkariei. Bidai osoaren prezioa 75 eurokoa izanen da.



Artxiboa

**Joan den urtean Etxalarren ospatu zuen Arkupeak elkarteak Aitatxi eta Amatxien Eguna. Aurten, Gprraizko Gazteluan bazkalduko dute.**

Bidaiari dagokionez, uztailaren 19an abiatuko dira, izen ematerakoan jakinaraziko den orduan. Lourdesera ailegatuta banatuko dituzte logelak. Arratsaldean, errosarioa bukatu bezain abudo, erien prozesioan hartuko dute parte. Afaldu ondotik, lasai ederrean, zuzien prozesiora joanen dira.

Uztailaren 20an, meza entzun ondotik, nahi duenak Gurutz-bidea egiteko aukera izanen du. Eguerdiko 13:00etan bazkaria izanen dute eta bazkal ondotik, tenore onean, etxerat aterako dira.

Bertze aldetik, uztailaren 26an Aitatxi eta Amatxien Nazioarteko Eguna ospatzen delaeta, besta eguna antolatu du Arkupeak elkarteak. Goizean, izen ematerakoan adieraziko den orduan herrietatik autobusean abiatu eta 11:30etan meza adituko dute Aralarko Santutegian. Handik Gorraiz aldera joanen dira, 14:00etan bazkaria izanen baitute Gorraizko Gazteluko jantokian. Menuan, terrina eta ogixigor dastaketa, Gorraizko frijituen aukera, barazki menestra, txangurro gainerrea, bildots errea entsaladarekin eta etxeko postrea izanen dute, kaba, ura, Señorio de Sarriako ardoa, kafea eta likore arruntarekin bustia. Bazkaldu ondotik, aitatxi eta amatxi bakoitzari oparitxo bat emanen zaio. 17:00etatik 19:30etara dantzaldia izanen da eta ondotik etxeruntz aterako dira.

Izen emateko epea ekainaren 23tik uztailaren 3ra zabalik dago eta egun osoaren prezioa 25 eurokoa da.

DONEZTEBE

# Enplegu Bulegoan moldaketa lanak eginen dituzte

## Bestak direla eta seilatzeak uztailaren 4an eginen dira

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Doneztieben daukan bulegoa moldatzeko 118.664,10 euroko inbertsioa eginen du. Horretarako lehiaketa deialdia egin du eta interesa duten enpresek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dute beraien proposamena. Eskaintzak uztailaren 18ko eguerdiko 12etan irekiko dira eta orduan jakinen da zein enpresak eginen dituen lanak.

Bertze aldetik, Doneztebeko Enplegu Bulegotik jakinarazi dutenez, Doneztebeko San Pedro bestak direla eta bulego hori itxia egonen da ekainaren 29tik uztailaren 1era. Seilatzeak uztailaren 4an eginen direla ere jakinarazi dute.

### *Estibaliz Aranbillet Turismo Bulegoko arduraduna*



Estitxu Aranbillet beratarra da Doneztebeko Enplegu Bulegoko arduraduna uda honetan. Bulegoa ekainaren 18an ireki zen eta abuztuaren 31a arte zabalik egonen da, egunero 10:00etatik 14:00etara. Asteartetan itxia egonen da.

# Lesakako bestak

Herriz herri besta

# 05



## Sanferminak

uztailaren 6tik - 10era














## Besta giroan murgiltzen joateko, aintzineko asteburura̲ko ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte Lesakan

## UZTAILAK 2 Larunbata

**12:00etan:** Haurrek herri kirol erakustaldia eskainiko dute Plaza Zaharrean.

**15:00etan:** Illasmendiko tiro-eremuan Plater Tiro lehiaketa Pagolleta Ehizi Elkarteak antolatuta.

**17:00etan:** Frontoian, haurren pilota erakustaldia. Arkupe elkarteak antolatua.

**20:00etan:** Lesakako Musika Bandaren emanaldia Plaza Zaharrean.

## UZTAILAK 3 Igandea

**11:00etatik 13:00etara:** Pilota. Erremonte erakustaldia. Kiniela amerikanoa. Trikitixa saioa.

**13:30etan:** Plaza Zaharrean, bertso emanaldia.

**15:00etan:** III. Automobil-igoera Agiñara, Eguzki Sport Eskuderiak antolatua.

**19:30 etan:** Plaza Zaharrean, Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen 8.Trikitixa Txapelketaren finala.










MERTZERIA
Deñe
LENTZERIA
BESTAK ONGI PASA !!
Bonoko Plaza, 10
Tel. 948 637 514
31770 Lesaka - Nafarroa

ERRO zurgindegia
Zurgin lanak
orokorrean
Alan-zahar
948 637 862 LESAKA

ETXEBERRIA
OSTATUA
Plaza Zaharra, 21
Tlfnoa: 948 637 700 - LESAKA

MADERAS
ERKIZIA, S.L
EXPLOTACIONES FORESTALES
BASO USTIAPENAK
Ongi pasa HERRIKO BESTAK!
Plaza berria, 7
31770 - LESAKA
e-posta: m.erkizia@teleline.es
616 45 72 74
616 45 72 75
Tel: 948 63 71 68
Faxa: 948 63 80 31

kuttuna
Bittiria Kalea 30, Lesaka. Tel: 948 637 563

LEGARRA
BERRIKUNTZA
oposizioak prestatzeko
liburuak ekartzen ditugu
Egunero irekia
Tel-Faxa: 948 637 030 · Albistur, 9 · LESAKA

FAGOAGA HARATEGIA
Aupa San Fermin !!

TALLERES FRAIN
LESAKA · Tel.: 948 637 525
Ongi pasa bestak!

BAR FRONTÓN

Aliprox
Zure marka berria liderra den talde baten babesarekin
Urdaitegia
Harategia
Arraindegia
Frutategia
☎ 948 637 264
Bittiria, 67 · LESAKA

JOISA
AROZTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA
Barandak, balkoiak, hesiak, forja artistikoa...
Otsango industrialdea · LESAKA
Tlfnoa/Faxa: 948 638 150
Mug: 646 774 117



## Haur danborradak karrikak alaituko ditu Bezpera egunean



### UZTAILAK 6 Asteazkena

***Bezpera eguna***

**12:00etan:** Herriko Etxetik igoko den altxaferoaren eztandak emanen die hasiera aurtengo bestei. Ordu berean txistulariek, soinulariek, Txakain txarangak, trikitilariek eta haur ttikien danborradak girotuko dizkigute herriko kaleak.

**17:30etan:** Frontoian, Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia.

## Tantirumairuko dantzariek dantza saioa eskainiko dute arratsaldean

**20:00etan:** Peña guztien ordezkariak altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, Erraldoi eta Buruhandi, danborjole eta soinulari, Lesakako Banda eta guzti, herri osoari itzulia emateko.

**00:00etan:** Musika Lesakako Plaza Zaharrean, GAUBELA taldearekin. INCANSABLES txaranga karrikaz karrika ibiliko da.










GARBILEKU
Garbitegia Lesaka
Plaza Berria, 10 · Tfnoa: 948 637 438

ibai-ondo
janaridenda
Antoiu karrika
Tel: 948 637 949
LESAKA


Goiz-Alde
LESAKA
948 637 518

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

Jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen
Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA


KONGELATUAK:
Albondigak
Urdaiazpiko,
oilasko, piper
eta arrautze kroketak

Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK
Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko
janaridendetan
Jaime Urrutia 35 - ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO



















## UZTAILAK 7 Ortzeguna

### *San Fermin eguna*

**8:30etan:** Ezpatadantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz eginen da.

**10:30etan:** Udalbatza bertze agintariekin, Ezpatadantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri guzitik prozesioa. Ibilaldia berriro Elizan burutu ondoren, Udalbatza, mezara joan diren moduan jaisiko dira Eskolttikira, Onin errekan egiten den Z BIGAINEKO dantza ikustera, XV. mendean Lesakarren artean lortu zen bakea oroitaraziz.

**18:00etan:** Elizarako eta Elizatiko joan-etorria Meza Nagusira bezala eginen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Ondoren, eta ohiturari jarraituz, Ezpatadantzari taldeak MUTIL-DANTZA, NESKA-DANTZA, AURRESKU eta JOTAK danzatuko ditu Plaza Zaharrean.



**San Fermin egunean, goiz goizetik ikuskizun ezberdinez gozatzeko aukera izanen dute Lesakara hurbiltzen direnek**

**19:30etan:** Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua: Sebastián Lizaso, Andoni Egaña, Xabier Silveira, Maialen Lujanbio, Julen Zelaieta eta Juan José Zubieta "Etxabe". Gai-jartzaile: Estitxu Arozena.

**20:00etan:** Erraldoi eta buruhandiekin kalejira, Bittiria karrikan barna. Txakain gazte txarangarekin.

**Gauez:** Musika Plaza Zaharrean, EGAN taldearekin. Egun guztian, INCANSABLES txaranga karrikaz karrika.




Dia %
LESAKA
Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko LESAKAKO DIA
Dia % Plaza Berria, 10 · 948 637 335

Pinpirin
Sanfermin besta ederrak opa dizkizuegu!

Iñaki OLAIZOLA
* elektrizitatea orokorrean
* muntaia elektrikoak
* alarmak
Bittiria karrika, 39 - LESAKA
948 637 405 - 670 417 499

Mikel UBIRIA
eskabazioak





eskabazioak eta garraioak
Tel: 948 637 214
Mug: 619 716 322
608 779 641
Bittiria plz, 8 · LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA





IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Telf.: 948 63 74 60
31770 Lesaka (Navarra)

Kalefakziorako Gasoila etxez etxe banatzen da

Besta ederrak pasa !

PASTELERIA HAIZEA BOLLERIA
CAFETERIA
Tel: 948 638 036
Plaza Zaharra, 7
31170 LESAKA

ESTHER ATEAK
Ateak eta zerrailak
saldu eta jartzen ditugu
Gora San Fermin !
Zarandia 9 · Tel/fax: 948 62 75 84 · LESAKA
esther-ateak@terra.es

AROZTEGI METALIKOA
S. Odriozola - B. Huici
☎ 948 631 244 - Fax.: 948 625 564
Alkaiaga Industrialdea
Elutxa karrika · Pab. 3/18
31789 LESAKA
Ongi pasa San ferminak !!!

LESAKA AUTOESKOLA
Albistur kalea, 29-H
Telf.: 948 63 78 70
Fax: 948 63 81 53
LESAKA

INDARRI
Hotz komertziala
eta industriala
Tel: 948 630 898
Mug: 639 103 305 BERA
Aupa Sanfermin !!

IRU BIDE
Gora San Fermin!
948 637 127 · LESAKA

## Mariatxiak, perkusioa eta diskofesta Peñen egunean



### UZTAILAK 8 Ortzirala

*Peñen eguna*

**9:00etan:** Peñen gosaria

**10:00etan:** Peñen danborrada, Txakain txarangarekin.

**12:00etan:** Betizuak, Plaza Zaharrean, Incansables txarangarekin.

**Arratsaldez,** tren turistikoa haurrentzat, herrian barna, eta puzgarriak igerilekuetan.

**17:30etan:** Peñen kontzentrazioa Txarangarekin, Peñen jaitsierarako.

**20:00etan:** Plaza Zaharrean, betizuak.

**20:00etan:** Mariatxiak kalejiran, IMPERIAL DE NOCHISTLAN taldearekin.

**21:30etan:** Batukada PERFUSION taldearen eskutik.

**Gauez:** Diskofesta, IMANOL Plaza Zaharrean.



## Gaztetxoentzat, danborrada, animazioa, puzgarriak, dantza erakustaldiak...

# UZTAILAK 9 Larunbata

### *Haurren eguna*

| | |
|---|---|
| **10:30etan:** | Haur koskorren danborrada, Txakain txarangarekin, Erraldoi eta Buruhandiekin kalejira Antoiu eta Albistur karriketan barna. |
| **11:00etan:** | Haur animazioa, Gorriti-ren eskutik, Eltzeta plazan. |
| **12:00etan:** | Betizuak, Plaza Zaharrean. |
| **Arratsaldez:** | Komentuko zelaian, Navar Producciones haurren ikuskizunak: Karts, Puzgarriak... |
| **18:00etan:** | Frontoian, eskuzko pilota partidak. Arkupe Elkarteak antolatuak. |
| **19:30etan:** | Plaza Zaharrean, herriko gazteen DANTZA-JAZZ erakustaldia.. |
| **Arratsaldez eta gauez:** | Musika, Plaza Zaharrean, TXIMELETA taldearekin. INCANSABLES txaranga herri guztitik. |














Etxarte
bitxidenda · erlojudenda · kirol trofeoak
ONGI PASA HERRIKO BESTAK !
Albistur karrika, 1 · 948 637 206 · LESAKA

IGOMAR S.L.
igeltseritza orokorrean
Gora San Fermin !!
948 637 873
948 637 320
LESAKA

IÑAKI janaridenda
Besta ederrak pasa itzazue !!
Arrotzo, 12 · 948 638 287 · LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
948 637 027 · LESAKA
Ongi pasa
San
Ferminetan !

Matias MITXELENA
eraikuntzak
Etxeak
Zaharberritzeak
Teilatuak
LESAKA

ZAPATADENDA

KAXERNA
Javier Eneterreaga
Sukalde altzarien
aurrekontuak
ETXE TRESNAK
Zarandia karrika, 3
Tfnoa: 948 637 070
Mug: 607 946 191
LESAKA




## Scalextric, Nafarroako jotak, Musika bandaren kalejira...
## San Fermin bestei amaiera emanen dien ezkonduen egunerako

### UZTAILAK 10 Igandea

***Ezkonduen eguna***

**10:00etatik**
**13:00etara:** Frontoian, Scalextric Irungo Scalextric Elkartearen eskutik.

**11:00etan:** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak, Pamplonicas taldearekin. San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak antolatua.

**12:00etan:** Betizuak, Plaza Zaharrean, INCANSABLES txarangarekin.

**17:00etan:** PAILAZOEN kalejira. Bittiriatik komentora.

**18:00etan:** Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak, Pamplonicas taldearekin.

**18:00etan:** Garai batean egiten zena gogoratuz, Musika Bandarekin, Eskolttikitik Txakainera joanen da kalejiran, han merendatzera. Merendu herrikoia.

**20:00etan:** Txakaindik jaitsiera, ZORTZIKO doinuarekin.

**Arratsaldez**
**eta gauez:** Musika, Paza Zaharrean LUHARTZ taldearekin. Ondoren INCANSABLES txaranga.

**3:30etan:** "JAI-HILAK" INCANSABLES txarangarekin.

# Gora San Fermin!


umetxo

Juan Arana, 14 • IRÚN 20302 • Tfn: 943 61 8 452
Koldo Mitxelena, 28 • RENTERIA 20100 • Tfn: 943 111 585

SORGIN-XULO





34tik 70 taila bitarte
Jazteko arropak edo
informalak, bitxiak..
Neska, mutil, emakume
eta haurdunentzat

Plaza Zaharra, 4 • LESAKA • 948 638 032



Zorionak
Lesakar
guziei

Gure oroitzapen
berezia gure
artean egoterik
ez duten guztiei

Apartamentuak · Jatetxea · Ostatua
www.hotelbereau.com
Tfnoa: 948 627 509 · LESAKA




Plaza Zaharra, 28 · LESAKA · 948 637 105-948 637 220




ERAIKUNTZA TRADIZIONALA

Lurra
Harria
...

Ongi pasa bestak!

✆ 652 764613

ttipi-ttapa telebista

bestetako irudirik ederrenak gorde nahi dituzula ?

deitu **948 635 458** telefonora

www.ttipi.info




- Lur mugimenduak
- Saneamenduak
- Urbanizazioak
- Nabe industrialak
- Ormigoiak eta etxebizitzak
- Teilatuak-Fatxadak eta pinturak

**ETXARTE eraikuntza enpresa**

Biurrana auzoa, Etxartenea · Tfnoa-Faxa: 948 637 709 · Mug: 608 770 850 · LESAKA




LESAKAKO UDALAK

San Fermin zoriontsuak
opa dizkie herritar eta
kanpotik etorritako guztiei

**Gora
San Fermin!**



**KULTURKARI**
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

Publizitatea prentsan,
irratian eta
telebistan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA




LIBURUAK




ALDIZKARIAK



BUZOIRATZEKOAK




FOILETOAK

**KULTURKARI**
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

**ANDUTZETA 12 • 31760 ETXALAR • (0034) 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net**

TURISMOA

# «Hoteles Nobles del Reyno» izeneko elkartea ezagutzera ematen hasi da



Berako Churrut eta Arizkungo Señorio de Ursua sartuak daude

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Kultura eta turismo departamentuko kontseilariak, Juan Ramon Corpasek eskualdea bisitatu zuen ekainaren 13an. Lehenik, Berako Churrut hotelean bildu zen Hoteles Nobles del Reyno izeneko elkarteko ordezkariekin. Hauek, irailean aurkeztu nahi duten elkartearen berri eman zioten. Zazpi hotel biltzen dira elkarte honetan, tartean Berako Churrut eta Arizkungo Señorio de Ursua. Interes arkitektonikoa, historikoa edo inguruaren interesa duten hotelak biltzen dira kalitateko izendapenhonen bailan. Ignacio Soroa Churrut hoteleko arduradunak aipatu zuenez *«masifikaziotik ihes egin eta kalitatezko produktu batera joatea da gure helburua»*.

Bera utzi eta Elgorriaga aldera jo zuten Juan Ramon Corpas kontseilariak eta Carlos Erce, Turismo zuzendari nagusiak. Bertan, Jose Miguel Galarregi alkatearekin bildu eta Elgorriagako bainuetxearen lanak bisitatu zituzten. Espainiako Sustapen Ministerioak eta Elgorriagako Udalak bainearioa egiteko hitzarmena sinatua dute. 2007. urtera arte, Ministerioak 3.222.361 euro jarriko ditu eta Elgorriagako Udalak 4.704.693 euro, baina hauetatik 1.933.428 euro Nafarroako Gobernuak jarriko ditu.

Zuk baduzu kreditua.

autocrédito

Kreditu-automatikoa zure erosketak finantziatzeko, eta zeuk erabaki non eta noiz erabili nahi duzun.

Nahi duzun tokian eta momentuan

credi-rural

Eta bertze proiektuetarako, formularik egokiena erabakiko dugu zure ilusioak finantziatzeko.

www.ruralvia.com

Egunero hobekiago egitearen erronka

NAFARROAKO RURAL KUTXA

LEITZA

# Ikurriñari buruzko gaiarekin etorkizunean zer egin aztertuko da

## Aralarrek EAren postura zein izanen den jakin nahi du lehenbailehen

ttipi-ttapa

Ikurriñari buruzko herri kontsulta bertan behera uztea erabaki zuten galdeketa bultzatzen duten lau taldeetatik hiruk. Izan ere, Larrain, EA eta Ikurriñaren Aldeko Taldeak *"iruzurtzat"* kalifikatu zuten Aralarrek bere papeleta propioa banatu izana etxez-etxe *"Ikurriña bai, baina Udala babestuz"* zioten papeletak hain zuzen ere. Hala, nahiz eta Nafarroako Gobernutik eta Iruñeko Auzitegitik kontsulta egitea debekatuko zela abisatu, Larrainek, EAk eta IATak prentsaurreko bidez jakinarazi zuten herri-galdeketa bertan behera uzteko *«arrazoi bakarra Aralarrek iruzur eginizana»* zela. Herri-kontsultaren galdera *"Ikurriña udaletxeko balkoian, bai ala ez?"* eta erantzuteko *"Bai - ez"* elkarrekin adostuak zirela aipatu zuten hiru taldeok, baina Aralarrek, *"adostutakoarekin bat ez zetorren esaldi bat ageri zuen beste papeleta batzuk"* banatu zituen.

Aralarrek *"guztiz legitimotzat"* jo du bere jokabidea, eta *"harrigarria"* iduritu zaio beste hiru taldeen erabakia. Aralarren aukera *"beste bat gehiago bezala"* onartuko zela espero zuten, eta *"zein aukerak ateratzen zuen gehiengoa, hura errespetatuko"* zutela azpimarratu dute. Orain, etorkizunera begira EAren postura zein izanen den jakin nahi du Aralarrek, *"bere postura zein den argi dezala, eta aldiberean, gu bakarrik uzteko asmoa duen ala ez"*. Ostiralean zuten bilera.



***Dirulaguntza herriko Haur Eskolarentzat***

**Udal haurtzaindegiak finantziatzeko Hezkuntza Departamentuak eta udalak sinatutako elkarlan hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 35.308,56 euroko dirulaguntza emanen dio Leitzako Haur Eskolari. Jangelako tasen konpensaziorako 1.096,38 euro emanen ditu eta ekipamendurako 4.207,06 euro. 42 haurrentzako lekua dauka Leitzako Haur Eskolak.**

FLASH

### *Kirol merituari domina*

Nafarroako Gobernuak kirol merituaren zilarrezko domina eman dio Jose Mari Razkin leitzarrari *«Aurrera kirol elkartean 25 urte baino gehiagoz futbolari eskaini dion dedikazioarengatik»*.

### *Droga kontsumoari buruzko kezka*

Droga kontsumoak egin duen gorakadak arduratuta, arazoa sakon aztertzeko eta erabaki egokiak hartzea eskatu diote Udalari. Leitzako 100 gurasok eta 109 enpresa ttiki, dendari, tabernari eta elkartek sinatutako idatzian. Eskaria sinatzen dutenek beharrezkotzat jo dute eskola inguru eta leku publikoetan zaintza motaren bat jartzea. Beraien ustez *«ospakizun bereziak direnean Leitzan droga legalak ala ilegalak eskuratzea oso erraza da eta eskaintzaileak ere lasai dabiltza»*.

### *Mikel Illarregik olerki saria Portugaleten*

Mikel Illarregi Elberdin herritarrak Portugaleteko Mario Angel Marrodán X. Olerki Sarian euskarazko lehen saria eskuratu zuen «Argazkiei begira» lanarekin.

ARANO

# Ateak zabaldu ditu berriz kontzejuko tabernak

Kontxi KLABER

Ekainaren 9an berriz zabaldu ditu ateak kontzejuko tabernak ia 6 hilabete itxita pasa ondoren. Urnietarra den Emaitzek hartu du taberna, sukaldaria da eta 11 urte pasa ditu Piriniotan Aran eta inguruetan lanean. Orain hemen froga egitea erabaki du eta sei hilabeteko kontratua sinatu du Udalarekin.

### *Mikel Aralarkoa*

Orain artean ekainean etortzen bazan ere aurten uztailaren 6an etortzekoa da Mikel Aralarko Aingerua eta aurtengo erronda Aranon bukatuko du.

### *Pilota txapelketa*

Ekainak 18an hasi ziren pilota partiduak jokatzen eta asteburuero izango dira partiduak. Uztailaren 16an semifinalak eta 23an finalak barne. Neskak palaz 4 bikotek osatzen dute taldea, mutilak palaz 12 bikotek, eta eskuzkoa 6 bikotek.



**Mikel Aralarkoa duela 25 urteko argazkian.**

## GOIZUETA



ARGAZKIA: PAULO MIRANDA

**Argazkian ikus daitekeen bezala, erantzun ederra eman zioten herritarrek Umore Onak antolatutako Bardeetako irteerari. Asteburu ahaztezina izan omen zen denentzat.**



ARGAZKIA: PAULO MIRANDA

**Umore Onaren mus txapelketaren finalean bi belaunaldi topatu ziren aurrez aurre. Euxtakito eta Manolo batetik eta Miel Angel eta Iñaki Roeri bestetik. Azkenean beteranoak nagusitu ziren arront arrakastatsua suertatu den edizio berritu honetan.**

# Lau urteko planaren barreneko eskaera askori ezezkoa eman die Nafarroako Gobernuak

### Ur deposito eta hodieria berria eginen dira 2007an

Esteban AROTZENA

Maiatzaren 20ko Foru Agindu batek dioenez, 2005-2008ko Planean Udalak aurkeztutako obra handienei ezezkoa eman die Nafarroako Gobernuak. Urumea ondoko pasealekua (724.000 euro) eta Madalenako zubi berriari eta hainbat baserritako pistak ormigoitzeari (580.000 euro) esate baterako.

Iruñetik dirulaguntza jasoko duten obren artean azpimarragarriena etxetako uraren hornidurari dagokiona da. Prebisioak betez gero, 2007an deposito berria eginen da eta hodioria eta ur-hartzea hobetuko dira, honek guztiak 225.000 euroko aurrekontua du. Aurten berriz, Zumarreneko zabortegia ixteko asmoa da, eta horretarako 223.000 euro beharko dira, gaiarekin segituz esan, 12.000 euro balioko duten zaborrontziak erosiko direla hurrengo urtean.

Gobernuak subentzionatuko dituen lanen zerrenda 2007an eginen litzatekeen kanposantuaren berritzearekin bukatzen da, 46.400 euroko aurrekontua du obra honek.

Aipatutako Foru Aginduaren arabera, orain kanpoan geldiutako obrek lekua izan dezakete planaren balizko zabaltze batean, baina hauetako batzuei, Madalenako zubiari adibidez, Iruñeko teknikoek emandako kalifikazioa ikusirik, aukera hori ezinezkoa izanen dela dirudi.

## ARESO

# Sokatira taldeak esperientzia aberasgarria izan du Suitzan

### Bigarren izan ziren 600 kiloko kategorian

Juana Mari SAIZAR

Soka tira taldea Suitzatik pozik itzuli da baina lana egin ondoren eta sariarekin. 2.postuarekin 600 kilotan Mosnang Suitzako taldearen kontra eta 640 kiloetan 5.ak 20 kiloko desbentajarekin jokatu baitzuten. Esperientzia polita eta aberasgarria bizi izan dute. Orain Euskal Herriko lur gaineko txapelketan ari dira eta lau pisuetan parte hartuko dute. 3. jardunaldia Areson, uztailaren 3an ospatuko da.

### Kultur Eguna

Bi egunez aurten kultur eguna ospatu da. Larunbatean umeentzako antzerki, joku eta meriendak. Igandean plazako larratxean herriko hainbat azinda zein baino zein dotoreagoak ikusgai izan ziren baita etxeko hegaztiak ere. Dantza saioa, herri bazkaria Irazu eta Egaña bertsolariekin plazako trinketean egin zen itzalean eta arratsaldez iparraldeko jokuen II.jardunaldia ospatu zen txapelketan barne, ikusgarria eta berezia gero arratsaldeko pixka batekin bukatu zen aurtengoa.



ARGAZKIA: JUANA MARI

**Dantza saioa ere izan zen Kultur Egunean.**

BAZTAN

# Azpilkuetan Sanferminak uztailaren 6tik 9ra

Egun nagusian pilota txapelketaren final handia jokatuko da


Umore ederra izanen da aurtengo San Juan bestetan ere.

### Asteazkena 6
Bezpera egune

**12:00etan** Txupinazoa eta ondotik, kalejira.
**21:00etan** ezkil jotzea.
**21:30etan** baztanzopak.
**24:00etatik 4:30etara** JOXE ANGELekin dantzaldia plazan.

### Ortzegune 7
San Fermin egune

**10:00etan** Dianak.
**11:30etan** Meza nagusia (herriko koroak abesturik).
**13:00etan** herrikoentzako luntxa.
**16:30etan** Azpilkuetako San Fermin pilota txapelketa final haundia.
**17:00etan** Mus txapelketa.
**20:30etatik 22:00etara** FRANZISKOrekin dantzaldia plazan.
**24:00etatik 4:00etara** FRANZISKOrekin dantzaldia plazan.

### Ortzilerla 8
Zikiro-jate egune

**8:00etan** su piztea.
**9:30etan** gosarie.
**10:00etan** dianak.
**14:00etan** Zikiro jatea, JOXE ANGELek alaiturik.
**22:00etan** Herri afaria.
**24:00etatik 4:30etara** JOXE ANGELekin dantzaldia plazan.

### Larunbata 9
Haurren Egune

**9:00etan** Dianak.
**10:00etan** plater tiro txapelketa.
**13:30etan** gazteen bazkaria.
**16:00etan** jokuak eta zozketa berexi bat.
**17:00etan** txokolatada.
**20:30etatik 22:00etara** TUCAN taldearekin dantzaldia plazan.
**01:00etatik 5:00etara** TUCAN taldearekin dantzaldia plazan eta gaixoa ni.

## Irakurketaren sustatze lanarengatik sarituak

ttipi-ttapa

Irakurketa Sustatzeagatik sariak banatu zituen ekainaren 16an Fermin Villanuevak, Nafarroako Gobernuko Eskola eta Lanbide Ikasketetako zuzendari nagusiak. Sariketa honetan, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeek hartu dute parte. Horretarako, eskolako liburutegiaren erabilerari buruzko lana, esperientzia pedagogikoa edo materiala aurkeztu behar ziren.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, ohorezko aipamena jaso du Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lekaroz-Elizondo Institutuak.

MENDI ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • © 948453060

construcciones
MORTALENA ANAIAK
Paulenea, 29 - 2A ELIZONDO
948 580385 / 948 581473
627 400620 / 617 716488

Okindegia
Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIAN
JATETXEAN

## BAZTAN




UTZITAKO ARGAZKIA

Bai Euskarari ziurtagiria lortu dutenak Arizkunenea atarian.

# «Bai Euskarari» ziurtagiriak banatu zituzten ekainaren 19an

### Hogeita hamabortz gizarte eragilek eskuratu dute

**ttipi-ttapa**

Baztango 35 saltokik, enpresak eta era guztietako erakundeek jaso zuten Bai Euskarari Ziurtagiria ekainaren 19an. *«Euskara bizitzako arlo desberdin askotan normaltasunez ikusi eta entzun dadin lortzen duzuelako Ziurtagiria merezi duzue»* eskertu die Kontseiluko Idazkari Nagusiak, Xabier Mendigurenek. Arizkunenea Kultur Etxean egindako ekitaldian, Iñigo Iturralde euskara zinegotziak ere hartu zuen hitza: *«Baztango Balleko Etxearen izenean zoriondu nahi zaituztet Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duzuen erakunde eta enpresa guztioi»*. Alazne Sansiñena euskalgintzako ordezkariak eta Juan Miguel Munarriz gizarte eragileak Baztanen lortutako ziurtagiri kopurua nabarmendu zuten: *«Aurten herritar gehiago saiatu dira euskararen normalizazioaren bidea errazten»*.

Akitzeko, Xabier Mendiguren Nafarroako egoerari buruz mintzatu zen, egoera latz horretan herriek egindako ahaleginak nabarmendu nahiak. *«Oso harro gaude»* azpimarratu zuen.





Argazkiak: ONDIKOL

### *Baztan Ikastolaren Eguna eta San Francisco Javier eskolaren urte bukaerako bestak ospatu dira*

**Ekainaren 12an Baztan ikastolak bere eguna ospatu zuen. Meza eta dantza saioen ondotik, bazkaldu aitzinetik, Mari Jose Iturralde andereñoak aurten ikastolan 25 urte egiten dituela eta, omenaldia jaso zuen. Kantuak, bertsoak, haurren besarkadak eta margo lan bat jaso zituen opari. 170 lagun inguru elkartu ziren Merkatuzelaian bazkaltzera. Bazkaldu ondotik haurrek puzgarriak eta kartsak izan zituzten eta atsaldean dantzaldia izan zen Santxotenak alaituta.**

**Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak ere ikasturte bukaerako ekitaldia egin du: Pilota partiduak, puzgarriak, kartsak... izan ziren neska-mutikoen gozagarri. Gero zikiro-jatean elkartu ziren ikasle, ikasle-ohi guraso eta irakasleak, eguna modu ederrean akitzeko.**






BAZTAN

# Historiaurreari buruzko lehen jardunaldiak eginen dira irailean Museo Etnografikoan

## Hainbat solasaldi antolatu dira eta Trikuharri handien ibilbidea eginen da

**ttipi-ttapa**

Baztango Historiaurreari buruzko lehendabiziko jardunaldiak eginen dira irailaren 14tik 17ra Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoan. Baztanen udako ikastaro gisara egiten den lehen ziklo hau Baztango Udalak, Atapuerca Fundazioak, Aitzinako Egiptoko Ikerketa eta Zabalkunderako Fundazioak eta museoak berak antolatu dute, Eusko Ikaskuntzaren eta Nafarroan Unesco erakundeak duen taldearen laguntzaz.



Argazkia: Alicia del Castillo

**Aurrehistoriari buruzko jardunaldien aurkezpenean, ezker-eskuin: Agustin Olabe, Carlos Garaikoetxea, Virginia Aleman eta Maria Luz Mangado**

Ekainaren 23an egin zen aurkezpen-prentsaurrekoan, Virginia Aleman alkatea eta Carlos Garaikoetxea zinegotziekin batera, Maria Luz Mangado, Aitzinako Egiptoko Ikerketa eta Zabalkunderako Fundazioko koordinatzailea eta Agustion Olabe, Museo Etnografikoaren Lagunen Elkarteko kidea izan ziren. Bertan aipatu zutenez, «*Soalarko iruinarria kasualitatez topatzearen eta museoko lorategira eramatearen ondorioz, halako jakinmin berezia ernarazidu historiaurre eta megalitismoaren inguruan*».

Jardunaldiak irekitzeko Jordi Rossel, Atapuercako lan-taldeko kideak eta Tarragonako Unibertsitateko irakasleak «*Historiaurrerako sarrera: Niloko bailara eta Afrikako iparraldea*» solasaldia eskainiko du. Egun berean, Maria Amor Begiristain, Nafarroako Unibertsitateko historiaurre katedradunak «*Historiaurrea eta megalitismoa Pirinio Mendebaldean*» solasaldia eskainiko du.

Irailaren 15ean, Pedro Arrese eta Iosu Cabodevilla historialarien txanda izanen da eta Baztango Karta Arkeologikoa aurkeztuko dute.

Irailaren 16an, «Megalitismo Iberiarraren botere irudiak» izenburupean, Alcalá de Henareseko unibertsitateko hiru adituk hartuko dute parte, Rodrigo Balbin historiaurre katedradunak eta Primitiva Bueno eta Rosa Barroso irakasleek.

### Trikuharri handien ibilbidea

Irailaren 17an, jardunaldiak akitzeko, trikuharri handien ibilaldia eginen dute partehartzaileek Lamizilo, Rolan, Munautz, Sorginetxea eta Aznabarretan barna. Honela, «*teorian esplikatuko zaiena in situ ezagutzeko aukera izanen dute jardunaldietan parte hartzen dutenek*».

45 lagunendako lekua izanen da eta izen emateko 30 euro ordaindu beharko da (20 ikasle eta erretiratuendako). Horretarako Unescok Nafarroan duen zentroarekin harremanean jarri behar da (Gaztelu Plaza 43bis, 3.D, Iruña) edo telefonoz 948 221089 telefonora deituta 10:00etatik 13:00etara.





## SENPERE



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE
**Jaun hartzea erearoaren 12an egin dute herriko zonbait gaztek.**



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE
**Sire jaun andereak diamantezko eztaiak ospatu zituzten erearoaren 3an.**

# Ikasturtea bururatzeko danborrada ikusgarria egin dute ikastolako haurrek

Loteriak ehunka euroko bi sari utzi ditu herrian

**Franck DOLOSOR**

Ibarrungo Inharrea baserriak Donostiako itxura hartu zuen gan den erearoaren 17an. Ikastolako haurrek, irakasleek eta gurasoek danborrada haundia prestatu zuten. Gipuzkoako hiri nagusian entzuten diren doinuak Senperen berean eskaini zituzten. Betiko martxek giro ona sortu zuten. Musikaz gain, gipuzkoarren jantziak ere ikusteko parada izan zen ikastoletako gurasoek eta lagunek ohiko jantziak apailatu baizituzten emanaldi hoinetarako. Ikasturtearen eta bestaren ondotik orain bakantzez gozatuko dute herriko ikastetxeetako gazteek eta irakasleek.

### *Loteria sariak herrian*

Loto loteriak ehunka euroko bi sari utzi ditu Senperen erearoan. 915 euro eta 691 euroko bi sari banatu dira hain xuxen herritarren artean.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
**Zaldubi ikastolako danborrada**






## SARA



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE
Saiberri taldeak Manex Bergarak idatzitako bertsoak kantatu zituen.

# Omenaldi hunkigarria egin zitzaion Manex Bergarari

### Lore eskaintzaren ondotik liburua aurkeztu zen

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Ekainaren 19an igandearekin, Manex Bergararen omenaldiak laurogoi bat lagun hurbildu ditu. Goizeko hameketan lore eskaintza egin zen, bere hilarrian eta ondotik liburuaren aurkezpena. San Josepe eskolako haurrek eta Saiberri taldeak Manexek idatzitako bertsuak kantatu dituzte. Bertsulariak ere hor ziren. Eguna goxotasun osoan pasatu da. Jakinarazten dizuegu bere gainean egindako liburua salgai dela 15 euroan Herriko Etxeko edantegian eta Berri Tokin, prentsa lekuan. Agur eta ohore Manex!

#### Eskola publikoa bestan

Ikasturte hondarra dugunez eskola publikoak bere besta antolatzen du polikiroldegian uztailaren 2an larunbatarekin, arratsaldean ikusgarria eginen da eta 20etatik goiti afaria antolatuko da.

#### Errugbi solas

Ekainaren 11n Sarako errugbi elkarteak zikiroa antolatu zuen. Arratsaldean partidak jokatu dituzte aurtengo jokolariak eta lehengoak aritu ziren Dordoniako talde baten aurka. Arratsean 150 bat lagun hurbildu ziren zikirora. Gaua giro onean pasatu zen.

#### Larrun ttiki

"Larrun ttiki" udako haurtzaindegiak bere ateak uztailaren 11tik abuztuaren 26a arte idekiko ditu. Haurtzaindegia astelehenik ortziralera idekia izanen da goizeko 7:30etatik 18:30ak arte. Haurrek bazkaria tokian berean hartzen ahalko dute goizeko 9ak eta erdiak baino lehen izena emanez.

Animazioak goizeko 9etan hasiko dira arratsaldeko 4ak eta erdiak arte. Aurtengo prezioa 10 euroan finkatua da egun osoko, barnean sartzen da goxaria, bazkaria, krakada eta ateraldi guziak. Baionako CAFak familia batzuei dirulaguntza eskaintzen ahalko die haur bakotxarentzat "passeport CAF" delakoa, eta izen emaitearekin beharko da presentatu. Aurten ere kondutan hartua izanen da delako "quotient familial" egunaren prezioan. Fakturak tokian berean eginak izanen dira. Arduraduna Martine Goyetche da eta animatzaileak Maider Olasso, Christine Sorhouet, Joana Arotzarena eta Joanes Garcia izanen dira.

## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Udalekua izanen dute haurrek uztailean

### Uztailaren 2an Atxuria mendi taldea Hiru Erregeen Mahaira joanen da

Margari eta Koro

Egundaino gure haurrek izan ez duten aukera aurtengoan izanen dute: bi herrietako haurrendako udalekua antolatu da uztailerako. Hilabetearen lehenbiziko hamabortzaldian Urdazubin bilduko dira, goizez; eta bigarrenean Zugarramurdira etorriko dira, arratsaldez.

Ekintza hau Herriko Etxeetako eta Guraso Elkarteko dirulaguntzarekin antolatzen ahal izan da eta bi monitore izanen dire arduradun (Fani eta Arantxa). Parte hartuko duten haurrek 4 urtetatik 12 urterainokoak dira eta bakoitzak 35 euro ordainduko du.

Oraindik ere izena emateko epea zabalik dago, telefono honetan: 948 599027

#### Hiru Erregeen Mahaira

Urteko bere ibilaldietatik kanpo Atxuria mendi taldeak bertze ateraldi berezi bat antolatu du heldu den uztailaren 2rako: Hiru Erregeen mahaira. Usaian inguruko mendi xumeetan barna ibiltzen badira, oraingo honetan Pirinioetako "mitiko" batekin saiatuko dira. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 30a izanen da.

#### Juanito Etxenike omendua

Ekainaren 20ean Elizondon egin zen Pilotarien Batzarrean, omenaldia egin zitzaien garai bateko pilotari batzuei. Hoien artean Zugarramurdiko Juanito Etxenike izan ginuen. Juanito remontista ona izan zen bere sasoinean eta ongi merezitako omenaldia izan zuen.

#### Idazleen Topaketa

Ekainaren azkeneko aste-hondarrean Xaretan ospatu zen Kataluina eta Euskal Herriko XII. Idazleen topaketa. Ortziralean Urdazubin egin zitzain harrera eta hortik aintzina gure lau herrietan barna izan dituzte ekitaldiak: hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, errezitaldi poetikoak...

Denbora batean Axular euskal idazle ospetsua sortu eta bizi izan zen lur hauetan gaur egun idazleen bilkura bat egiteak erranahi haundia du: Leze, pottoka, sorgin eta turismotik aparte, gure bazterretan zerbaite gehiago eskaintzeko gai ere bagarela.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458



## EZKONTZAK

**Gorka Fuentes Muxika** eta **Ruth Etxebeste Hilinger**, Zubieta eta Doneztebekoa, ekainaren 18an.

**Pedro Alsua Eskudero** eta **Raquel Iartza Arratibel**, Goizuetakoak, ekainaren 18an.

**Juan Carlos Zamorano Berrospe** eta **Nagore Juarros Larrea**, Irungoak Lesakan, maiatzaren 21ean.

**Jon Arburua Endara** eta **Koro Zelaieta Altzuri**, Berakoak, ekainaren 11n.

**Luis Mari Retegi Telletxea** eta **Elena Sorozabal Arretxea**, Eratsun eta Sunbillakoa, ekainaren 11n.

**Mikel Cruz Ballarena Arrijuria** eta **Lorea Jaen Maritorena**, Iruñekoak Lekarozen, maiatzaren 28an.

**Carlos Tapia de la Fuente** eta **Itziar Zelaieta Salaberri**, Iruña eta Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 11n.

**Carlos Jose Irisarri Martikorena** eta **Belen Urrutia Uhalde**, Elbetekoak, ekainaren 10ean.



## SORTZEAK

**Lorena Uitzi Eskudero**, Goizuetakoa, ekainaren 8an.

**Oier Apezetxea Alsua**, Goizuetakoa, ekainaren 17an.

**Jone Indakotxea Zubialde**, Zubietakoa, ekainaren 8an.

**Jon Ander Ruiz Sarasola**, Lesakakoa, ekainaren 6ean.

**Ainara Hearn Mentaberri**, Zugarramurdikoa, ekainaren 14an.

**Ane Ballarena Fagoaga**, Elizondokoa, ekainaren 2an.

**Xabier Isuskitza Aranburu**, Amaiurkoa, ekainaren 4an.

**Beñat Zamora Zelaieta**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 9an.

**Patxi Mendiburu Oharriz**, Azpilkuetakoa, ekainaren 11n.

**Ane Telletxea Galarregi**, Iruritakoa, ekainaren 16an.



## HERIOTZAK

**Joseba Etxeberria Agerrebere**, Arraiozkoa, ekainaren 7an, 24 urte.

**Soledad Etxeberria Escala**, Sunbillakoa, ekainaren 9an, 74 urte.

**Garbiñe Barquilla Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 12an, 40 urte.

**Jose Maria Danboriena Etxeberria**, Etxalarkoa, ekainaren 13an, 91 urte.

**Jose Ugalde Ruiz**, Elizondokoa, ekainaren 13an, 88 urte.

**Pedro Eltzaurdia Altzuguren**, Berakoa, ekainaren 15ean, 63 urte.

**Juan Jose Dagerre Etxegarai**, Arizkungoa, ekainaren 15ean, 53 urte.

**Jose Maria Mitxelena Zelaieta**, Lekarozkoa, ekainaren 17an, 68 urte.

**Joaquin Goienetxe Irigoien**, Etxalarkoa, ekainaren 21ean, 80 urte.

**Miguel Iribarren Iribarren**, Lekarozkoa, ekainaren 21ean, 71 urte.

---



**Rosario**

**IRIGOIEN DANBORIARENA**

**I. URTEURRENA (Igantzin, 2004ko uztailaren 2an)**

*Urtea pasa da*
*eta zure ondotikan*
*Iñaki ere joan da.*
*Gure artean ez egon arren*
*gure barruan zaudete beti.*
*Besarkada handi bat*
*atta, Iñaki eta zuretzat.*

**ZURE FAMILIA.**



**Joseba**

**ETXEBERRIA AGERREBERE**

*Nahiz eta gure artetik*
*urrutira joan*
*beti izanen zaitugu*
*gure bihotzean.*

**Guraso, arreba eta familiaren partez, bihotz bihotzez esker mila denei.**

Arraiozen, 2005eko ekainean.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI
Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Donato LARRETXEA** *Urrezko Aizkolariak txapelduna*

## DATUAK...

- Urrezko Aizkolariak txapelketa hirugarren aldiz irabazi du Donato Larretxea Arantzako aizkolariak. Ekainaren 11n Azpeitian jokatutako finalean ongi gailendu zitzaion Floren Nazabal faborito nagusiari.
- Orain, uda parteko erakustaldietan murgilduko bada ere, udazken partean jokatuko diren Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketetarako animoak eman dizkio emaitza honek.
- 45 urte ditu, baina «atzetik ate joka aunitz ez daudela ikusten dugu eta segitu beharko dugu pixko bat!».

# «Kirolean egunero egin behar da zerbait eta eginen zenituzkeenak egin gabe utzi»

**Aitor AROTZENA**

Donato Larretxeak iragarpenak irauli zituen ekainaren 11n jokatutako Urrezko Aizkolarien final nagusian eta aurreko urtean txapeldun izan zen Floren Nazabali merezita nagusitu zitzaion, lehenbiziko enborretik hasi eta bukaera bitarte aitzinetik jarri eta aldea handitu bertzerik ez baitzuen egin. Aitzinetik Floren Nazabal zen faborito eta ezustekotzat har daiteke emaitza, baina Larretxeak bazuen konfiantza bere buruarengan: *«Hura sasoiko dago eta gaztea da, beldurra baneukan, baina azken aldian nere burua ere nahiko indarrez ikusten nuen eta lanak emanen nizkiola banekien... Irabaztea posible zela ikusten nuen, galtzea ere bai, baina azkenean gogor hartu nuen aurrenetik eta lortu nuen»*.

Azken bizpahiru urteetan txapelketa ofizial eta ez ofizial gehienetan Larretxea eta Nazabalen arteko lehia suertatzen da. Badirudi gainerako aizkolariak gutxienez koxka bat beheitiago daudela. Adinean ere, bien arteko aldea izanik, ez du Larretxeak bidea libre uzteko intentziorik oraindik: *«Ahal bada ez, oraindik hor nabil eta tarteka, zenbait txapelketetan eusten diodala ikusten da. Urtean zehar txapelketa dexente daude eta denetan ezin da aurrean ibili, baina batean edo bestean oraindik erakusten diot nahiko hurbilean nagoela»*.

**«Urtean txapelketa dexente daude eta denetan ezin da aurrean ibili, baina batean edo bestean, tarteka oraindik erakusten diot Nazabali nahiko hurbilean nagoela»**

### Aitzinetik hastearen garrantzia

Finaleko lehiarik handiena lehenbiziko enborrean aurrea hartzea izan zen. Beraien burua aitzinetik ikustea gustoko dute aizkolari guziek eta horretan saiatzen dira proba hasi bezain laster: *«Aizkora munduan* –dio Larretxeak– *abantaila ttiki bat hartu baldin baduzu, zaila izaten da gero besteak aurrea hartzea. Suertatzen ahal da adar bat ateratzea eta denbora galtzea, edo zerbait pasatzea, baina gogor hasi eta ahal bada aurretik hasitzea gustatzen zaigu denoi, horretan saiatzen gara»*.

1985eko Euskal Herriko txapelketan azpitxapeldun izan zen Donato Larretxea. Finaleko aizkolari gazteena bera zen. Hogei urte pasatu dira, gaztea beterano bihurtu da, baina oraindik punta-puntako aizkolaria da. Hor aitzinean aritzeko *«sufritu egin behar da»* dio Donatok. *«Sakrifizio aunitz egin behar dira, kirola gogorra da eta egunero zerbait egin behar da eta eginen zenituzkeen gauza asko egin gabe utzi, parrandak batez ere. Janariari begiratu behar zaio eta norberak gogor egin behar dio bere buruari kirolean segitzeko, paliza haundiak hartu»*.

PILOTA



Argazkia: Foto Mena

**Berrehun pilotari baino gehiago aritu dira Josetxo Ezkurra zenaren omenez hamabosgarren aldiz antolatutako esku pilota txapelketa honetan.**

# Joxe Ezkurra XV. Memorialaren finalak jokatu ziren ekainaren 18an

Txikien mailatik kadetetara, berrehun pilotari baino gehiago aritu dira

A.A.

Ekainaren 18an jokatu ziren Doneztebeko udal pilotalekuan Josetxo Ezkurraren omenez egin den hamabosgarren pilota txapelketaren finalak.



Txikien mailan, Berako Joseba Pikabea eta Iñigo Martinezek 18-4 irabazi zieten Elizondoko Asier Bertiz eta Sergio Oskoz-i.

Umeak B mailan, Ultzamako Unai Astiz eta Iker Larraiozek 18-15 irabazi zieten, Lekarozko Aitor Almandoz eta Iruritako Iñaki Azpirozi.

Umeak A mailan, Burlatako Asier Agirre eta Iker Espinalek 18-3 irabazi zieten Doneztebeko Ander Andueza eta Iturengo Arkaitz Untxalori. Kimuak B mailan, Narbarteko Jokin Arretxeak eta Sergio Agerrek 18-7 irabazi zieten Iruritako Egoitz Prim eta Mikel Azpiroz-i.

Haurrak B mailan, Arbizuko Asier Carasatorre eta Josu Barberenak 18-14 irabazi zieten Almandozko Gorka Altzuarte eta Elizondoko Iñaki Perurenari.

Kimuak A mailan, Arbizuko Aitor Ijurra eta Beasaingo Beñat Azketak 18-8 irabazi zieten Almandozko Ismael Agesta eta Iruritako Joseba Apeztegiari.

Haurrak A mailan, Hondarribiako Beñat Arzelus eta Ioritz Manterolak 18-9 irabazi zieten Iturengo Oier Bereau eta Urrozko Unai Madariagari.

Kadeteak B mailan, Iruritako Unai Barberenak eta Igantziko Imanol Goienetxek 18-17 irabazi zieten Gartzaingo Jon Arretxea eta Eratsungo Eneko Rabinari eta kadeteak A mailan, azkenik, Urdazubiko Jon Ollok eta Urrozko Xabier Madariagak 22-10 irabazi zieten Olaztiko Joseba Saez eta David Kortabarriari.

HERRI KIROLA

## Iparraldeko Joku Torneoaren azken saioa larunbatean

ttipi-ttapa

Uztailaren 2an jokatuko da Orbaitzetan Nafarroako Herriko Kirol Federazioak antolatu duen Iparraldeko Joku Torneoaren hondar jardunaldia. Errotxapean eta Areson jokatutako saioetan, koxkor biltzen Fernando Etxegarai beratarra nagusitu da. Errotxapean, Patxi Irazoki igantziarra izan zen bigarren eta Areson, Iñigo Lasaga etxalartarra, hiru segundu eskasera. Hiru jardunaldi jokatu arren, bi denborarik onenak kontuan hartzen direnez, badiru hiruek Nafarroako koxkor biltze txapelketan aritzeko txartela eskuratuko dutela. Gogoan hartu behar da bortz kirolarik jokatuko dutela txapelketa hori. Ingude altxatzen, Xabi Sein igantziarrak abantaila ttiki bat atera dio Carlos Seinori. Harrijasotzen eta txinga eramaten kontuak garbi daude eta Josetxo Urrutia leitzarrak eta Oskar Telletxea igantziarrak jantziko dute txapela larunbatean. Lehia gehiago izanen da lasto altxatzen, Iñaki Bereau, Carlos Sein, Oskar Telletxea eta Xabi Sein igantziarrek saio berdinduak eskaini baitituzte orain arte. Zaku lasterketan ere lehia berdindua izanen da Bernozar eta Igantziren artean.

# AGENDA egunez egun

### MENDI ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Uztailaren 2-3an** Panticosatik Midi D'Ossaura (2.884 m) ateraldia eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

**ZUGARRAMURDI**

**Uztailaren 2an** Hiru Erregeen Mahaira joanen dira Atxuria mendi taldekoak.

### BIZIKLETA ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Uztailaren 17an** Sunbilla-Lesaka-Agiña-Oiartzun-Behobia-Sunbilla ateraldia eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

### IKASTAROAK

**ELIZONDO**

**Ekainaren 27tik uztailaren 6ra** haurrendako grabatu eta estanpazio ikastaroa eskainiko dute Arizkunenean Eneko Perez eta Sonia Ilzarbe irakasleek.

### KONTZERTUAK

**LESAKA**

**Uztailaren 2an** Lesakako Musika bandaren emanaldia 20:00etan Plaza Zaharrean.
**Uztailaren 3an**, Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen 8. Trikitixa txapelketaren finala 19:30etan Plaza Zaharrean.

### BERTSOAK

**LESAKA**

**Uztailaren 3an** Plaza Zaharrean bertso emanaldia 13:30etan.

### KIROL EGUNA

**BERA**

**Uztailaren 2an** hainbat ekitaldi eginen dira goiz-arratsaldez.

## TELEBISTAKO TXOKOA



HERRIZ HERRI, BESTAZ BESTA

# Besta giroan murgilduko da ttipi-ttapa telebista

Doneztebeko San Pedro bestatan buru-belarri sartuak gaude, astearteko txupinazoaren ondotik. Uda honetan «herriz herri, bestaz besta» ibiliko diren ttipi-ttapa telebistako kamera eta aurkezleentzat ere horixe izan da abiapuntua. Aste honetan, Doneztebeko bestek ematen dutenaren berri ikusten ahal da arratseko saioetan. Horretarako aukera ez dutenek, biharamonean ere izanen da errepikapena ikusteko aukerarik, ordu ezberdinetan. Sanpedroak igandean akautuko direla kontuan hartuz, asteburuko irudiak, elkarrizketak eta besta guzietan urterourtero izan ohi diren xelebrekeriak astelehen arratseko saioan ikusteko modua izanen da.

Doneztebeko bestei txanda hartuz, heldu den astean Lesakako Sanferminak izanen dira protagonista ttipi-ttapa telebistan. Txupinazoa eta ondoko giroa, San Fermin eguneko prozesioa eta dantzak, peñen eguneko jautsiera, haurren eguneko joku eta irriak, betizuetan ateratzen diren *toreroak*... programa ofizialean ageri diren ekitaldiak eta norberak inprobisatzen dituenak agertuko dira arratseko 20:00etan hasiko den albistegian. Nola ez, Doneztebe eta Lesakako bestetako bideoa eskatzeko aukera ere izanen da.

## DISKAK



*«Gure Mandamentuak»*
**BRIGADA CRIMINAL**
*GOR DISKAK, 2005*

Brigada Criminal talde langilea dela onartu beharrean gaude, euren ibilbidea hasi zutenetik dezente baitira laukoaren grabaketak. Ez dira honetan hasi berriak, nahiz eta berez «Gure Mandamentuak» hau izan euren lehenengo bakarkako disko ofiziala. Seguraski beraiek irri eginen lukete talde «langilearen» deskripzio horrekin, beraientzako rock'n rolla ez baita lana, ezpada behar fisiologikoa kasik, pasioa, zainetan borborka daramaten zerbait. Eta ezin izenburu biribilagorik topatu «Gure Mandamentuak» baino, izan ere hauxe da Lazkaoko taldearen dekalogoa, punk-rock kantu zorrotz, zital eta zuzenekin inguruko hipokresiari aurre egiteko. Kaleko doinu bikainak, hardcore amerikarra eta ingelesari keinuka. Akordeak eta pozoia, asperkeriaren aurkako dosi eraginkorrean.

## BASERRIA

Datu iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Ekainaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo). 29,50 € (-2,00)

**Zerri gizena**
1,202 € kiloa (+0,045)

**Zerramak:**
0,470 € Kg/bizirik. (+0,020)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 42 (=)
**1.koa** 3,22 (=)
**2.koa** 3,09 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,52 (=)
**1.koa** 3,34 (=)
**2.koa** 3,16 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 240,00 (-12,00)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 206,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 6,10 / 6,30
8-10 kilokoak: 4,70 /5,20

## JAKIN BEHARREKOAK

# Trenaren berandutzeagatik kalteordaina eskatzen ahal da

### Horrela jakinarazi du Irachek bere argitalpenean

Irache kontsumitzaile elkarteak kudeatzen dituen Nafarroako 36 udal bulegoetan banatutako argitalpenean, Trenbide sektoreko araudi eta overbooking lege berrien xehetasunak ageri dira; bertzeen artean. Herri hauetako bizilagunei bideratutako 27.300 informazio-orri banatu dira, euskaraz eta gazteleraz argitaratuak, uda parteko ateraldiei begira.

Trenbide sektoreari dagokionez, tren enpresak kontratatutako garraioa aurreikusitako denboran egiteko betebeharra daukala da berrikuntza nagusia. Helmugara ordubete baino gehiagoko atzerapenarekin ailegatuz gero, bezeroak ordaindutakoaren erdia berreskuratzeko eskubidea izanen du. Atzerapena ordu terdi baino gehiagokoa baldin bada, kalteordaina txartelaren prezio osokoa izanen da.



Trenaren ordubete baino gehiagoko atzerapenarengatik kalteordaina eskatzen ahal da.

Hegazkinei dagokienez, overbooking araudi berria zehazten da Iracheren informazio hiruorrikoan. Praktika hau oraindik baimendua dago, baina kontsumitzaileek jasotzen ahal dituen kalteordainak handitu dira.

Ekipaiari dagokionez, fakturatutako ekipaiek jasaten ahal dituzten kalte, galera edo materialen inguruan autobus nahiz tren enpresek duten ardura azpimarratzen da. Errate baterako, falta den edo kaltetu den kilo bakoitzeko 14 euro eta 50 xentimoko kalteordaina jasoko du bidaiariak. Tren garraioaren kasuan, gehienez 600 euroko kalteordaina eskuratzen ahal du bidaiariak. Horregatik, erabiltzaileei ekipaiak fakturatzeko aholkua eman die Irache kontzumitzaile elkarteak. Hegazkinen atzerapenei eta ekipai galerari buruzko xehetasunak ere ageri dira argitalpenean.

## LIBURUAK



*Aitortza*

**Abelin LINAZISORO**

*TXALAPARTA, 2005*

1936ko gerrak milaka gizon, emakume, haur eta agure hartu zituen bere zurrunbiloaren baitan. Eleberri honek ahaztura den naufragiotik salbatu nahi ditu protagonista hauetako batzuk, Xixili narratzailearen ahotsaren bitartez. Gerrako protagonista anonimo izandako honek garaiko egunerokotasunaren berri ematen digu, beldurra, biziraupena eta maitasuna bezalako kontzeptuen haritik tiraka, epikotasunetik honatago egon zen munduari begiratuz. *«Bideko galipota harrotuta zegoen. Pinporta handietan. Borborka ari ziren maskuri beltz puztuak ziruditen. Ke artean, hari pila baten ondoan, erorita, amama ile-urdin batek, nire ilobatxue!, esan zion».*

Abelin Linazisoro 1942an jaio zen Zumaian. Aktore lanagatik ezagunago izan arren, literatura *Axun* (Susa, 1995) eta *Iraganean galdua* (Txalaparta, 2001) izan dira bere sorkuntza lanak.

## AGENDA egunez egun

### BESTAK

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 20tik uztailaren 3ra** San Pedro bestak. Xehetasunak 400. alean.

**ERRATZU**

**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra** San Pedro bestak. Xehetasunak 400. alean.

**AZPILKUETA**

**Uztailaren 6tik 9ra** San Fermin bestak. Xehetasunak 18. orrian.

**LESAKA**

**Uztailaren 6tik 10era** San Fermin bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### ERAKUSKETAK

**BERA**

**Uztailaren 1etik 24ra** Maddi Irazoki beratarraren lanen (pintura, eskultura, grabatuak, zainolipia eta kamisetak) erakusketa Kultur Etxean. Asteartetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 30etik uztailaren 28ra** Clara Santamaria margolariaren olioak ikusgai Turismo Bulegoko erakusketa gelan. 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**ELIZONDO**

**Ekainaren 21etik uztailaren 15 artio** Hector Urraren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00etatik 21:00etara.

**ETXALAR**

**Uztailaren 8tik 24ra** Eli Mendiaren margo erakusketa Kultur Etxean. Astelartez 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30etara. Asteburuak 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:30etara.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**BERA.** Pisua salgai Eztegara pasealekuan. ☎ 649 436364.

**LEITZA.** 180 m²ko hiru solairu dituen baserria salgai, 62.000 m²ko lur eremuarekin. ☎ 600 007185 (goiz, eguerdi eta iluntzean).

**DONEZTEBE.** Estreinatu gabeko apartamentua salgai, herri erdian, bi logela, sukalde-jangela, bainua, terraza eta igogailua. ☎ 948 451945 (gauez).

**BERA.** Pisua salgai, kiroldegi ondoan. Sukaldea eta bainua berrituak, egongela, 3 logela eta trasteroa. Bihalkoi. Nahi bada, garajea ere aukeran. ☎ 661 931727.

**LEITZA.** Pisua salgai Patxi Arrazola kalean, 1. pisuan. ☎ 616 918238.

ETXEBIZITZAK

### 102 Erosi

**Baztan-Bidasoan** borda erosiko nuke, ura eta argiarekin. ☎ 615 744369.

**DONEZTEBE.** Bigarren eskuko pisua erosiko nuke. ☎ 628 725365.

ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisua errentan emanen nuke San Esteban 17an. ☎ 695 707644 (13:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik aurrera).

GARAJEAK/LOKALAK

### 107 Saldu

**LESAKA.** Garajea salgai Alzibar karrikan, Txirula denda inguruan. ☎ 627 763163.

GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Taberna traspasatzen da. Sukalde berritua, terraza eta MINP. Erraztasunak ematen dira. ☎ 690 361194.

**BERA.** Garajea errentan ematen da, Berako Posta etxe ondoan. ☎ 948 630881 (iluntzetan).

**ADOS**

- **ELIZONDO.** -2 eskuko pisuak salgai. - Egoera hagitz onean dagoen apartamentua salgai. - 1.100 m² dituen familiabakarreko etxea salgai.
- **DONEZTEBE.** - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. - Eraikitzen ari diren azken pisua salgai.
- **BERA.** -Pisu pare bat salgai. -Terrenoak erosten dira.
- **BAZTAN.** - Eraikitzen ari diren azkeneko 2 apartamentu salgai. - Hainbat lur eremu eraikigarri salgai.
- **ELGORRIAGA.** Eraiki behar diren adosatuak salgai. Informa zaitez.
- **ITUREN.** Erreforma behar duen etxea bere baratzearekin salgai.

**ETXALAR.** Eraikitzen ari diren azkeneko etxe familiarra salgai.
**BAZTAN-BIDASOAN**: baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.

948 451 841 / 948580795
www.ados-inmobiliaria.com

LURRAK/ORUBEAK

### 112 Salgai

**LESAKA.** Nabaz auzoan 7.400 m²ko lur-eremua salgai, bi etxe egiteko aukerarekin. ☎ 618 962596.

**LEITZA.** Basakabi ondoan lur eremua salgai. Sarbide onarekin. ☎ 699 361194.

**LESAKA.** Lurra salgai bi etxe egiteko. Herri ondoan, bistak herrira. ☎ 948 637934 edo 650 259605.

ZERBITZUAK

### 208 Bertzelakoak

**LESAKA.** Toailak, mantelenak, oheko maindireak, eskolako haurren mantalak, etab... bordatzen ditugu, eta orain San Ferminak instaak daudela eta, kamisetak peña bakoitzaren logotipoekin, danborradaren logotipoa, zapiak eta peña bakoitzaren blusei ere izenak bordatzen dizkiogu. Etorri Plaza Berria 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! ☎ 948 627660 edo 689 481980.

BULDAIN
INMOBILIARIA
948 ... ... [illegible]

LANA

### 301 Eskariak

**Neska bat** eskaintzen da etxeko lanak egiteko edota haurrak eta zaharrak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 610 402190 (Dolores).

**Neska** euskaldun gazte batek haurrak zainduko lituzke udan ordu batzuz egunean. ☎ 628 572260.

**28 urteko neska euskaldunak** Doneztebe inguruan haurrak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. ☎ 607 443903.

**24 urteko gazte batek,** C motako gida-baimenarekin, lan eginen luke. ☎ 690 629693.

LANA

### 302 Eskaintzak

**Frantses** pixka bat dakiten neska eta mutila behar dira udan lan egiteko. ☎ 948 631100 edo 948 630794 (gauez).

**Pertsona bat** behar dut etxeko lanak eta lorezaintza lanak egiteko. Ongi ordaindu ko da. ☎ 657 467289 (Estefania).

**Editorial batek** etxetik lan egiteko 50 kolaboratzaile behar ditu Nafarroan. Informazio zehatza eta doan 371 Postakutxan, 06800 Merida.

**ETXALAR.** Sukalde laguntzailea behar da, esperientziarekin. ☎ 948 635000.

**LEITZA-ARESO.** Mutil gazteak behar dira aluminio-arotzegian lan egiteko. Hobe esperientzia zerbait baldin badute, baina ez da nahitaezkoa. ☎ 948 510711.

**LESAKA.** Atxaspi ostatuan zerbitzari bat behar dugu, udan lanean aritzeko. ☎ 948 637538.

**IRUÑA.** Gozotegi batean lan

**Lan bila zabiltza?**

LAN ESKAINTZA
OSASUNBIDEA
Behar dira:
- 126 erizain.
- 15 fisioterapeuta.
- 14 langile sozial.
- 16 laborategiko teknikari.
- 14 irudi-teknikari.
- 65 erizain-laguntzaile.
- 57 zaintzaile.
- 37 zeladore.
SUKALDE LAGUNTZAILEA KAMAREROA
- Lanpostu finkoak
- Ordutegiak: Astelehenetik ostiralera

LAN ESKAINTZA
GARBITZAILEAK
Lanpostu finkoak:
- Eraikin publikoak
- Ikastetxeak
- Ospitaleak
Soldata: 900 € Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:00-15:00
PEOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA
- Igeltseroak
- Elektrizistak
- Iturginak Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:00-15:00

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

egiteko dendaria behar da. ☎ 629 424577.

**HONDARRIBIA.** Emakume euskaldun bat behar dugu, 45-55 urtekoa, gurasoak zaintzeko, interna moduan. Baldintzei buruz hitzegingo dugu. ☎ 636204527 edo 686 299103 (Lurdes-Javier).

**SUNBILLA.** Cepsak irekibehar duen gasolindegirako langileak behar dira. ☎ 619 829289. Curriculum Vitae bidaltzeko faxa: 948 625132.

**ETXALAR.** Herrikoostatuan zerbitzaria behar da. Ordutegi ona, soldata hobea eta gazte giroa. Hasiera batean bi hilabeterako. ☎ 948 635450.

**Gidariak.** Lanpostu libreak: Iruña, udaletxetan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak.** Bete behar da: haur zaindariak, heziztaileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukaldelaguntzaileak**, kamareroak. Lanpostu finkoak: 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Lanpostu libreak: atezain, harreragile, lorezainak erakunde publikoetan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea, Udaletxeak.** Derrioz, Fitero, Burlata, Berrioplano, Iruña. Administrari laguntzaileak behar dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak** eta ofizioko langileak: Lanpostu finkoak: igeltseroak, elektrizistak, iturginak erakunde publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera. 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak eraikin publikoetan, ikastetxetan, ospitaletan. 900 euroko soldata. Astelehenetik ortziralera 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Teknikariak, laguntzaileak, zeladoreak, klinika laguntzaileak. Lanpostu libreak: ospitalak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea.** Bete behar du: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 izpi-teknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Erresidentzietan lan egin.** Hirugarren adineko zentroetan, ospital publikoetan zeladore postuan, erizain laguntzaileak, fisioterapeutak, pintoak. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Renault Clio** 1.9 D salgai, 90 cv. Egoera onean, hobe ikustea. ☎ 667 046452.

**Peugeot 306** 1.6i autoa salgai, 90.000 km., NA-AU. Egoera onean, 4.200 euro. ☎ 686 079282.

**Peugeot 206** 1.4 gasolinakoa salgai. 1999. urtekoa. Prezio onean. ☎ 616861639.

**Renault Clio** 1.2 autoa salgai, NA-AM matrikuladuna. ☎ 637 136542.

**KTM 200** motoa salgai, 2004. urtekoa. Egoera oso onean eta oso gutti erabilia. ☎ 637 136542 (Joseba).

**Kawasaki KX 250** cross-eko motoa salgai, 1993. urtekoa. Botak oparitzen dira. ☎ 615 707195.

**Renault Megane** Coupé 1.9 DCI autoa salgai, 105 zaldikoa. Oso egoera onean. 2000. urtekoa. Extra guziekin. ☎ 650450160.

**Suzuki DR 350** motoa salgai, NA-AW matrikuladuna. 12.000 km. Egoera hagitz onean. ☎ 948 631364.

**Golf III GTI** autoa salgai, 16 balbulakoa. 4.500 euro. ☎ 677 594892.

**Yamaha Fazer 600** motoa salgai. Plato, pinoi eta katea berriak. Gurpil berriak eta motoaren maleta opari. Hobe ikustea! ☎ 687 736973.

## MOTORRA

### 502 Tailerrak

SAMPI ARAGON
ZOANSA
Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

TALLERES SANTESTEBAN
✆ 948 450283 • DONEZTEBE
AUTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-18 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

MENDAUR MOTOR
DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

**Spanier zakur emea**, 3 urtekoa, opari emateko. Oso polita. ☎ 677 594892.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Komodoreko armario** bat eta mahai bat salgai, antigualekoak. Mahaia 6 lagunentzat etxia, 10 lagunentzat erekia. ☎ 948 450321.

**Egongela eta bi logela** salgai, oeoak eta armario handikoak. Logela bat matrimoniokoa, 1,50eko ohatzearekin eta bertzea gazteena, bi ohatzerekin. Berriak daude. ☎ 658 726733.

## DENETARIK

### 703 Bertzelakoak

**Belarra lerroan jartzeko** makina handia daukat, besoa kentzen zaiona, eta gisako bertze ttikiago baten truke aldatuko nuke. ☎ 948 637447 (13:30etan edo 21:00etatik aitzinera).

**Pixaren zisterna** salgai. 1.500 litrokoa eta bonbarekin. ☎ 948 637965.

**Pascuali traktorea** salgai, egoera onean. ☎ 948 615029.

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetia • Asma • Zizareak • Larru azaleko alergia
Buruko mina • Odean izerdia • Prostata, etab.
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alferkua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bizkortzea
• Artritis, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab.
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
✆ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
· Pintura eta bernizak
· Bainurako mobleak eta osagarriak
· KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel. 948 450 080
Fax 948 450 334
DONEZTEBE

## urtebetetzeak

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,28€ ko 13 edo 26 seilu; 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 F ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.info



**Naiara Martin Goia**k 8 urte egin ditu ekainaren 17an. Zorionak amatxi Pili, osabak, izeba eta Ainhoaren partetik. Muxu haundi bat.



**Ane Aguirretxe Bikondoa** lesakarrak 2 urte bete ditu ekainaren 18an. Zorionak Lesakako eta Elizondoko familiaren partetik.



**Naiara Martin Goia** lesakarrak ekainaren 17an 8 urte bete ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Eñaut Gorrotxea Sagastibeltza** leitzarrak ekainaren 10ean 2 urte bete ditu. Zorionak «Kaxkazuri» zure familiaren partetik.



Berako **Ismail**-ek ekainaren 28an urtea bete du. Zorionak eta musuak familiaren partetik.



**Aritz Otxotorena Dominguez** irundarrak ekainaren 28an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu pila bat. Olaia, ama eta aita.



**Olaia Mendiburu Telletxea** elizondarrak uztailaren 2an urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Sunbillako **Inai Apeztegia Etxeberri**k 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Aitziber eta Idoia Irazoki Bengoetxea** lesakarrek ekainaren 30ean eta uztailaren 5ean 6 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Beleuntzako **Eider Irisarri Arzuaga**k ekainaren 27an urteak bete ditu. Zorionak eta musuak Urroz-ko familiaren partetik.



Ituengo **Leire Manterola Urrizeli**k 4 urte beteko ditu uztailaren 17an. Zorionak zure aita, ama eta familiaren partetik. Muxu aunitz.



**Naroa Huarte Juanotena**k urtea beteko du uztailaren 5ean. Zorionak Aita, ama, izeba-osaba, Doneztebeko eta Narbarteko aitatxi-amatxiak.



**Aimar Iparraguirre Zinkunegi**k 4 urte beteko ditu uztailaren 8an. Zorionak txiki eta egun ona pasa dezazula! Muxu bat E/laut, aitak eta amak.



Elko-Nevadako **Mitchell Owsley Iogai**k uztailaren 23an 7 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**



**ttipi-ttapa**
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

**Orain, ikusi urtebetetzeko argazkiak Internet-en www.ttipi.info**

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

# ttipi TXARTELArekin




## ttipi-ttapa doan eta deskontuak

## DESKONTUAK

### >> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

| | | |
|---|---|---|
| BERAUTO | Bera | %5 Errekanbiotan |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| KATEA BIKE | Bera | %5 Konponketetan |
| DATUCELAY | Elizondo | %10 Bateria eta amortiguadoretan |
| SANSIÑENA | Elizondo | %15 Olio-aldaketetan |

### >> AUTO ESKOLAK

| | | |
|---|---|---|
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |

### >> ARGAZKI DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| GOIKO | Bera | %10 Karrete, errebelatze... |
| AYLA | Bera | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Doneztebe | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Elizondo | %10 Errrebelatzea |
| ZALDUA | Doneztebe | %10 Produktuetan |
| ZALDUA | Elizondo | %10 Produktuetan |

### >> ARROPA DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ARRIET | Bera | %10 ( 30 € tik goiti, eskura ord. ) |
| EDURNE | Bera | %5 ( 30 € tik goiti, eskura ord. ) |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza-marka batzuetan ez |
| KAMAMILA | Doneztebe | %10 ( 30 € tik goiti ) |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |

### >> BITXIDENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ETXARTE | Lesaka | %10 bitxietan |

### >> ETXETRESNEN DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ALTZURI | Lesaka | %5 etxetresnetan |

### >> ESTETIKA ZENTRUAK

| | | |
|---|---|---|
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan (30 € tik goiti)<br>%10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Merkealdietan ez |

### >> KIROL DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 (30 € tik goiti) |
| ZELA KIROLAK | Bera | %5 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %5 Kirol artikuluetan |

### >> LENTZERIAK

| | | |
|---|---|---|
| MARICRUZ | Doneztebe | %10 (30 € tik goiti) |
| | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |
| DEÑE | Lesaka | % 10 Lentzerian |

### >> LIBURU DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas materialetan<br>Testuliburu eta bideoak ezik |
| MAIMUR | Leitza | %10 oparitzeko artikuluetan |

### >> OPTIKAK

| | | |
|---|---|---|
| OSTARGI | Bera | %10 (30 € tik goiti) |
| ARGIBEL | Elizondo | %10 anteoju graduatuetan |
| | Doneztebe | %10 anteoju graduatuetan |

### >> PENTSUAK

| | | |
|---|---|---|
| MENDAUR | Doneztebe | %5 Zakurrena, katuena... |

### >> TINDATEGIAK

| | | |
|---|---|---|
| JAIONE | Doneztebe | %10 (12 € tik goiti) |

### >> ZAPATADENDAK

| | | |
|---|---|---|
| KALOTXA | Bera | %5 (18 € tik goiti) |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| TXINELKA | Lesaka | %10 |

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK saltzen dituen txartelak erosiz, gauza aunitz lor ditzakezu: ttipi-ttapa lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin**

***Informazio gehiago:***

**948 63 54 58**

# ENBASEEK BEHAR BEZALA BEREIZTEA ESKATZEN DIZUTE

# BEREIZTU






## BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAN 164.000 Kg. ENBASE BERRESKURATU DITUGU

**Kontuan hartu birziklatze sistema etxean hasten dela. Bereiztu enbaseak eta sartu kolore horiko zaborrontzietan. Horrela egiten badugu ez dira zabortegietara eramanen eta ingurumena zainduko dugu. Guztion artean, oraindik gehiago egin dezakegu.**



SEGI DEZAGUN ENBASEAK BEREIZTEN GURE HERRIAK ZAINTZEKO

Baztango Udala

Bortziriako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Malerrekako Zerbitzu orokorren Mankomunitatea

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

www.ecoembes.com

ECOEMBES